

URRATSEZ URRATS



Arabako nekazaritza eta abeltzaintzako
emakumeen elkarte Gure Soroa

araba  álava
foru aldundia diputación foral



URRATSEZ URRATS

Nekazaritza eta abeltzaintzako
emakumeen elkarte
Gure Soroa

araba  álava
foru aldundia diputación foral



Laia 

Jatorrizko izenburua: Denboraren aldaba jotzen II

Idazlea: © Nekazaritza eta abeltzaintzako emakumeen elkarte Gure Soroa

Itzulpena: © AZ Participación

Berrikuspena: Lidia Salido eta © Uzanza Editorial

Azalaren maketazioa: © Uzanza Editorial

Barruko maketazioa: © Uzanza Editorial

Argitalpena: © Uzanza Editorial

Lankidea: Arabako Foru Aldundia

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debeztatuta dago, legeak ezarritako mugen barruan eta legez aurreikusitako ohartarazpenen pean, lan honen erreproduzio osoa edo partziala egitea edozein bide edo prozeduraren bidez, sistema informatiko batean sartzea eta edozein modutan edo edozein bide erabiliz (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa edo beste) transmititzea, copyrightaren titularren alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe. Eskubide horiek urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitua izan daiteke.

Lehen argitalpena: 2024ko abenduan

© Gure Soroa

ISBN: 978-84-129336-8-0

Lege-gordailua: LG G 00758-2024

Espanian inprimatua

Inprimategia: Ulzama Digital. Pol. Ind. Areta, C/ Altzutzate N°51 - 31620 Huarte. Pamplona - Navarra (España)

AURKEZPENA

Liburu hau Gure Soroak Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Sailarekin sinatzen duen hitzarmen bati dagokio, eta bere helburua da gizartea Gure Soroako emakume nekazarien eta abeltzainen bizitzara hurbiltzea.

Era berean, izen propioa duten emakumeak aintzatetsi nahi dira, eta gure lurraldeko nekazaritza eta abeltzaintzako emakumeak landa-ingurunean elementu dinamizatzailea izan direla ikusarazi, horrela gizarteari lagunduz.

Liburuaren helburua da emakume nekazarien errealitatea eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak erakustea, eta emakume horiek gaur egun duten lekua betetzeko egin duten lana aitortzea. Ez da dokumentu historikoa, ezta azterketa soziologiko edo zientifikoa ere.

Besterik gabe, nekazaritzan eta abeltzaintzan diharduten landa-eremuko emakumeen bizimodua berreskuratu eta aitortu nahi da. Hori guztia haien bizipenetatik haien bizitzak igaro diren testuingurura hurbiltzeko. Haien haurtzaroetatik hasi eta haien familia-egituretatik eta bizikidetzeta-moduetatik, gertatu diren kultura- eta pentsamolde-aldaketetaraino, haien bizitzetan erabakigarriak diren faktore kulturaletaraino... Azken batean, helburua Arabako landa-eremuko emakumeen eguneroko bizitzara hurbiltzea da.

Mugimendu feminista eta, zehazki, historiografia feminista, emakumeek historian izan duten papera ezagutzeko funtsezkoa da, eta aurrerapausoa izan da gizarte osoarentzat. Horregatik, historian arrastoa utzi duten emakumeen izen propioak berreskuratzeko ahalegina egin da.

Hurrengo bizitza istorioek Arabako herri jakin bateko emakume

jakin baten bizitzan gertatutakoa berreraiki nahi dute, horrela, bere oroitzapen pertsonalen bidez, adin jakin bateko emakumeek bizi behar izan dituzten gizarte-harreman desberdinak imajinatzeko. Hori guztia, gaur egun emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-maila handiagoak izatea ahalbidetu duten aurrerapenetara hurbiltzeko, pertsona guztientzako gizarte justuago baterantz aurrera egiteko asmoan.

Elkarrizketatutako emakume guztiak Gure Soroako bazkideak dira. Bere ahotsek, hitzek eta bizipenek 1943tik 1951ra bitartean jaiotako emakumeen bizitza kontatzen dute. Ia guztiak, Torreorgazen (Caceres) jaiotako bat izan ezik, Araban jaio ziren. Landa-eremuan eta landari esker bizi eta nekazarien eta abeltzainen elkarteko kide dira guztiak.

Beraien bizitzekin azken 80 urteetako historiara hurbilduko gara. Baserrietan jaio ziren; eta horiek bizimodua, pentsamoldea eta bizitza ulertzeko modua ematen duten autohornikuntzako ekoizpen-unitateak dira.

Haien bizipenetara hurbiltzean, XX. mendean zehar landa-ingurunean oro har gertatu diren aldaketa handiak ikusiko ditugu, baita, nola ez, Arabako landan ere.

Amonetatik, amatik eta aurreko belaunaldietatik geroztik, landa-eremuko emakumeen eguneroko bizitza ezezagunak gutxi aldatu ziren. Emakume nekazariak direnez, gertutik bizi izan dituzte eraldaketa batzuk: mekanizazioa, animalien trakzioa trakzio mekanikoarekin ordezkatzea eta horrekin datozen makina guztiak (uzta biltzeko makinak, traktoreak...), ongarri mineralaren ordezkari organikoak (animalia) erabiltzea eta abar. Antzina, nekazaritzan izandako eraldaketak belaunaldiartekoak ziren, eta emakumeek aldaketa sakonak bizi izan dituzte nekazaritzan eta abeltzaintzan.

Gainera, gauza bera esan dezakegu feminismoak eta emakumeen mugimenduak katalizatu dituzten gizarte-aldaketa sakonei buruz; adibidez, tradizioz isilduta egon diren emakumeen jakintzak, bizitzak eta ahotsak berreskuratzeko beharraren sorrera. Gaur egun, jakintzaren arlo guztietan ekarpenak egin dituzten emakumeen izen propioak berreskuratzen ari gara, eta,

horrela, emakume diren filosofoak, idazleak, politikoak, zientifikoak, medikuak eta abar ezagutu ditzakegu, emakumeak beti izan baikara gizartearen parte.

Hala eta guztiz ere, ez da hain ohikoa landa-eremuko emakumeak aintzatestea, emakume horiek ez baitira zientzialariak, asmatzaileak edo filosofoak, baizik eta landako emakumeak, sexuaren araberako banaketa zorrotza zen garaian bizi izan dira eta landako langile gisa aintzatespena lortzeko lan egin dute, bai eta lan-, gizarte- eta politika- eta ekonomia- eskubideak –baita aisialdirako denbora izateko eskubidea ere– benetan gauzatzeko ere. Emakume horiek elkartu egin ziren, irmoki uste zutelako batuta indar handiagoa zutela, ezagutza partekatzen zutela eta, taldean, eragin handiagoa izan zezaketela beren bizitzako baldintzak hobetzeko eta komunitatearentzat eta beren herrirentzat hobekuntzak lortzeko.

Eskerrik asko emakume horiei guztiei, jarraitzen diegun belaunaldientzat bidea irekitzeagatik.

ESKER ONAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu liburuko protagonistei, euren bizitzak gogoratzeko izan duten eskuzabaltasunagatik; izan ere, beren bizitzaren zatiak dira liburu hau posible egin dutenak.

Estíbaliz Fernández de Trocóniz López de Arcaute - Andollu

María Pilar Aguillo Cámara - Albaita

María Teresa Guerra Fernández - Gasteiz.

María Begoña Fernández de Larrea López de Vicuña - Gebara

Felisa Galdós Sáenz de Buruaga - Goiain

María del Pilar Guerra Fernández - Argantzun

Adela Ochoa Sobrevilla - Corro

Mari Carmen López de Sabando Arasategui - Larrea

Lucía González de Durana Gamarra - Antezana

Rosa María Martínez de Iturrate Ruiz de Zárate - Oatza

María Asun Lopez de Landache Landa - Ilarratza

Josefina Morillas García - Ixona

María Román Jiménez - Torreorgaz (Cáceres)

María Amparo Díaz Díaz de Junguitu - Aberasturi

Isabel Berganza González de Zárate - Antezana de la Ribera

Eskerrak ere Marisa Alonso eta Judit González de Matauco emakumei, haien erabaki, animo, lidergo eta talentu handirik gabe ez zelako liburu hau egingo. Eskerrik asko Estíbaliz Zufaur Palacios itzultzaileari, ardura handiz euskaratu duelako.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, gaur egun Elkarteko Zuzendaritza

Batzordeko karguak hartzen dituzten emakumeei, arriskuak hartzeko eta lan horri ekiteko duten ausardiagatik: M^a Ángeles García Nieto, Lourdes Etayo Ortiz de Orruño, Elvira Resano Martínez de Antoñana, Nieves Ozaeta Gómez, Resu Montoya Bazán eta M.Ángeles Tojal Martínez.

Eskerrak zirriborroak irakurri eta hobetu dituzten emakumeei, Martina, Loli eta Gure Soroako bazkide guztiei. Horiek guztiek, modu altruistan, posible egiten dute elkarteak aurrera egitea, denbora ematen baitute lankideen bizitza, herrietako jendearena eta bizitza propioa egunetik egunera hobetzen.

Eskerrik asko landa-eremuko emakume guztiei, haiei esker gozaten dugulako herriek dituzten loreez; eskerrak lurra zaintzeagatik eta, azken batean, bizitza zaindu eta mantentzeagatik.

HAURTZAROA LANDAN

Emakume guztiek oroitzapen onak dituzte haurtzaroko lehen garaiaz, eta horiek txikitatik lotuta daude nekazaritzari eta familiari.

Baserrian, normalean aitaren familiakoa, hiru belaunaldi bizi zitezkeen elkarrekin. Hirira emigratzen ez zutenek eta etxean geratzen zirenek lotura handia zuten lurrarekin, eta horrek familia-bizitza oso aberatsa sortzen zuen, abizenarekin, etxearekin eta lurrarekin identifikatua. Gainera, oso ohikoa zen seme-alaba asko izatea, batez ere gaurko familia nuklearrarekin alderatzen badugu; beraz, emakume horietako gehienek hainbat neba-ahizpa dituzte, eta neba-ahizpa horiek, batez ere haurtzaroan, lagun, ikaskide eta lankide bihurtzen dira.

Nahiz eta familiak beregainak izan eta ondasun jakin batzuk falta, haurtzaroko oroitzapenak, oro har, positiboak direla aipatzen dute.

«... ia denetarik genuen. Biltzen zena, lehenik, aziendarentzat zen, eta soberan zegoena saldu egiten zen». (12. Elkarrizketa)

«Nire haurtzaroko oroitzapen guztiak onak dira, oso onak. Agian orain baino gutizia gutxiago genuen. Nik ezin dut esan premia pasatu dudarik, baina...» (3. Elkarrizketa)

Gaur egungo haurtzaroan ez bezala, emakume horien haurtzaroa trebeska zeharkatzen du nekazaritza- eta emakume-izaerak, garai hartan genero-rolak oso markatuta baitzeuden. Txiki-txikitatik ulertu dute 'etxean laguntzea' gauza naturala dela, batzuetan benetako lanaldiak eginez.

«7 urte genituenetik, gu arduratu gara janaria prestatzeko ura ekartzeaz, iturritik ferratan ekartzeaz;

bai eta egurra ekartzeaz, saski batzuetan igo behar genuena». (7. Elkarrizketa)

Hala eta guztiz ere, nahiz eta familia osoak «lagundu», denak ados daude lan-banaketa ez zela mundu guztiarentzat berdina: generoaren arabera lan-banaketa eta familian zenuen lekua egitate bat ziren. Batez ere neba-ahizpak dituzten familia horiek argi uzten dute etxeko lanak emakumeen gauzak baino ez zirela, nahiz eta neba gazteak edo jornalariak izan.

«Nire nebak lursailean bizi izan dira, eta ni ez nintzen horra joaten. Orduan azukre-erremolatxa biltzen zen eta nire nebek gurea jasotzen zuten, eta gero, denbora soberan zutenez, herriko jendeari laguntzera joaten ziren. Hau da, beste pertsona batzuentzako lanak ere egiten zituzten, baina etxe barruan, mutilek ezertxo ere ez». (2. Elkarrizketa)

Gainera, etxean ikasitako rol-banaketa hori «normalena» zen. Emakume guztiak bat datoz hau esatean: lehen gizonek ez ziren etxeko lanez arduratzen, zereginen banaketa hori baitzen normalena.

«Aitak, egunen batean behar izanez gero, mahaia jartzen zuen. Baina ez zuen ezer erabakitzen eta ez zekien ezer ez sukaldeaz ez arropaz...». (7. Elkarrizketa)

«Lanetik itzultzen ginenean, bera egunkaria irakurtzera esertzen zen. Ni ukuilura joaten nintzen, eta izeba afaria prestatzera. Ez zuen ezer esan beharrik, hirurok baikenekien zer egin behar zen: ni jeztera, izeba janaria prestatzera eta bera egunkarira». (9. Elkarrizketa)

Baserrian lurrak, urtaroeak, klimatologiak edo eguzki-argiak markatzen zituzten erritmoak. Lanaren eta etxeko espazioaren arteko mugak ez zeuden gaur egun bezain markatuak, ez emakumeentzat, ez gizonentzat. Hala ere,

emakumeen zereginak oso bereizita zeuden. Baserrikoak ziren pertsona, animalia eta landare guztien bizitza zaintzeko beharrezkoak ziren zeregin horiek guztiak, berez, emakumeen ardura ziren; bereizketa hori modu naturalean egiten zen, horregatik zen hain ikusezina.

«Orduan emakumeek etxeko lanak, jatekoak eta gauza horiek guztiak egiten zituzten, eta gizona etorri eta egunkariarekin jartzen zen; hau da, bai, animaliekin edo dena delakoarekin egoten ziren, baina etxean bertan...» (12. Elkarrizketa)

Familia-egoera desberdinek ere eragin handia dute haurtzaroetan. Familian emakume bat hiltzeak, kasu askotan, suposatzen zuen neskato horiek haurtzaroa utzi behar zutela helduen erantzukizunak hartzeko, eta, horrela, etxea aurrera ateratzeko.

«[Ama hil ondoren] 11 urte bete nituenean herrira itzuli nintzen etxearen ardura hartzera... Hamaika urterekin... Gaur ikusten ditut adin horretako bilobak eta esaten dut: Ene, baina nola egin nitzakeen gauza horiek adin horrekin? Baina horrela izan zen. Eginez ikasi nuen». (8. Elkarrizketa)

«12 urte nituenetik [ama gaixotu zitzaidanetik] ni izan nintzen etxeko buru. Hori tokatu zitzaidan. Nik esaten dut hori dela egiten dakidan gauza bakarra. Korrika egin eta obeditu. Eta orain horrek balio izan dib». (4. Elkarrizketa)

Era berean, neba-ahizpa gazteagoak izateak familia-erantzukizunak handitzea ere bazekarren ahizpa nagusientzat, oso gaztetan «amarena egiteko» beharra ikusten baitzuten, etxea eta ustategia mantentzeko, bizitzaren erantzukizun horrek dakarren zeregin-zamarekin.

«Nik 10 urte bete baino lehen, nire amak bikiak izan zituen, eta ni etxean geratu nintzen

horiek zaintzen. Bi haurren amarena egitea egokitu zitzaidan 10 urterekin. Imaginatu nolakoa zen orduan: ur korronterik gabe, haur-oihalik gabe, ibaira jaitsi behar zenuen zikinkeriak garbitzera...».

(14. Elkarrizketa)

Kontatzen dizkiguten haurtzaroko pasadizoak landa-lanarekin ere lotuta daude: behiak ateratzea, patatak eroin eta biltzea, saila jorratzea, txerriei jaten ematea...



A.Ochoak eta M^a Asun Lz de Landachek utzitako argazkia

Istorio horietako askok adiskidetasuna ere badute ardatz. Oro har, oso oroitzapen onak dituzte herriko lagunez: kuadrillak mistoak eta adin guztietakoak ziren; hala ere, denek onartzen dute jolastea eta dibertitzera irtetea «ahal zenean» bakarrik egiten zela, lurrak ez baitu inoiz denbora libre askorik uzten.

«Euri asko egiten zuenean bakarrik; bestela, lursailean beti. Herrian hamabost adinkide ginen, beraz kuadrilla ona zegoen, baina beti lan egin behar zen». (9. Elkarrizketa)

Hala ere, jolasei buruz galdetzen diegunean, irribarrez erantzuten digute

ezkutaketan, marroan, makilen jaurtiketan, hiru ontzietan, «txapetan» eta beste hainbat jolasetan jolastu dutela, baina beti elkarrekin, neskak eta mutilak.

«Oso ondo pasatzen genuen. Berdin zen sei edo hamar urte izatea... herriko ume guztiak elkarrekin jolasten ginen. Ez genituen gaur egun dituzten txorakeriak, baina zeneukana asko baloratzen zenuen... Baina jolasteko denbora gutxi zegoen, beti baitzegoen zerbait egiteko, beti lagundu behar zen landan». (12. Elkarrizketa)

Hala ere, jolas horiek kirolarekin lotuago zeudenean eta futbolearen edo sokasaltoan jolasten zirenean, mutilak eta neskak bereizita jokatzeko zuten, hurrenez hurren. Gogoan dute, halaber, denbora luzea eman dutela sagar bila joaten edo masustak biltzen. Jokoak, batzuetan, lurrarekin zerikusia zuten zereginak ziren. Eta tonu dibertigarria hartzen zuten haurtzaroan egiten zirelako. Bihurrikeriaren bat egin zutela ere kontatzen digute, eta horrek familiako errieta on batekin amaitzen zuen.

HEZKUNTZA

Hezkuntza formala da, agian, pertsonaren arabera gehien aldatzen den alderdietako bat, garrantzi handia hartzen baitu irakaslearen figurak eta herriak berak. Ulertu behar da, emakume horien haurtzaroak garatzen diren testuinguruan, eskolen sarea ez zegoela gaur egun bezain garatuta hirilurraldean. Horregatik, emakume asko eskolarik gabeko herrietatik datoz, eta horrek esan nahi du biztanle gehiago dituen gertuko herri batera joan behar zutela hezkuntzara iritsi ahal izateko.



M.Románek eta M^a T Guerrak utzitako argazkiak

Ibilbide horiek, batzuetan benetako odiseak, oinarrizko hezkuntza jasotzeko beharrezko sakrifizioa ziren. Emakume batzuek gogora ekartzen dute ibaien iturburuak oinez zeharkatzea hilabeterik hotzenetan eskolara iritsi ahal izateko, edo errepide eta basoetatik egunero ibilbide luzeak egitea.

«Zati bat errepidetik joaten ginen, eta gero, lehenago iristeko, sasiz betetako bide txiki bat hartzen genuen, eta sugeak eta sugandilak ateratzen ziren.

Beldur ikaragarria ematen zidan zati horrek. Ahizpari esaten nion: ez, ez, hortik ez». (7. Elkarrizketa)

Gainera, eskola eta irakasle gutxi izateak hezkuntza-maila lortzeko eta mantentzeko zailtasunak zekartzan. Batzuetan ikasleak beste herri batera aldatzen ziren ikasturte batetik bestera, ikasle edo irakasle faltagatik. Era berean, adin guztiak nahastuta egoteak gai-zerrendan gaur egun ulertzen dugun moduan aurrera egitea eragozten zuen. Hala ere, adin-nahaste hori atzetik zetozenei irakasteko edo zaharrenak miresteko eragingarria ere izan zitekeen.



M.T.Guerrak utzitako argazkia

Emakume askokez dute nesken eta mutilen arteko tratu-desberdintasunik gogoratzen, baina ia guztiek aipatzen dute zereginak eta jarduerak argi eta garbi bereizita zeudela. Eskolara, normalean mistoa, 6 urtetik 14 urtera arte joaten ziren. Bestalde, oso ohikoa zen «neskentzako» eskolak, non joskintza eta beste jakintza batzuk ikasten zituzten, eskolaz kanpoko ordutegian izatea: gauetan edo oporretan.

«Neskek kakorraz-lana egiten ikasi behar genuen, brodatzen, eta mutilek...» «Gogoan dut gurutze-puntuan mahai-zapi bat eta eskuz brodaturiko maindire bat egin nituela. Ia

etxeke hornidura bat. Hor daukat oraindik». (1. Elkarrizketa)



M^a C Lz de Sabandok utzitako argazkia

Mistoak izan arren, eskola askotan mutilak neskak baino gehiago ziren; izan ere, neskak, oso gaztetatik, etxeke zaintzaz arduratu behar ziren eta horrek, batzuetan, eskolara joatea eragozten zien. Egia da emakume batzuk kultura lana baino garrantzitsuagoa zen familietatik datozela, baina beste kasu askotan, batez ere landa-ingurunean, ez zen horrela. Izan ere, gehienek «ahal zutenean» joaten zirela diote, baserriaren eta familiaren egoerak horretarako aukera ematen bazieten.

«Mutilak baino askoz neska gutxiago gindoazen. Gu joaten ginen aitak uste zuelako kultura arloan ikasten genuen guztia ona zela». (1. Elkarrizketa)

Ezin dugu ahaztu hainbeste ondorengo dituzten familietan askotan ikastea pribilegioa zela, eta, behar izanez gero, gizonentzat zela. Familia askotan, semeek bakarrik ikasten zuten, eta alabek ez zuten lehen hezkuntza amaitzen.

«Ez zen azalpenik egon. Ni nagusia nintzen. Imajinatzen dut niri egokitu zitzaidala. Egin behar duzula ikusten duzu eta egiten duzu. Haiek ikasi ahal

izan zuten ni nengoelako etxea eta ama zaintzeko».

(1. Elkarrizketa)

Alde hori adinak eta generoak, emakume izateak, markatzen zuten. Batez ere ahizpa nagusien kasuan, baina ez nahitaez. Ohikoa zen haiek izatea etxea zaintzen edo garbitzen geratzen zirenak eskolara joan beharreen, mutilek joateko aukera zuten bitartean. Hori horrela zen uste zelako etxeko lanetarako ez zela beharrezkoa nebek lan ordaindurako izan behar zuten hezkuntza bezain zabala izatea, eta, gainera, emakumeek bazekitela etxeko lanak hobeto egiten. Emakume askorentzat, eskema horiek gainditu izana eta haurrak, neskak eta mutilak, guztiok klasera joan ahal izatea da mugimendu feministak lortu duen aurrerapausorik onena eta egungo gizartearen lorpen handienetako bat.

«Ea berdintasuna bazegoen? Ez, noski ez ginela berdinak. Nire nebak noski ikasi zuela. Langraizera joan zen, eta nire ahizpak eta biok ez. Neskek ez zuten ikasten, pixka bat irakurtzen eta oinarrizko kontuak egiten jakitearekin nahikoa zen. Zorionez, bizitza asko aldatu da». (10. Elkarrizketa)

Gainera, erregulartasunez joan zitezkeen nesken kasuan ere, gehienetan familiako lan-kargak etxeko lanak egiteko denborarik ez izatea eta eskatutako mailari edo mutilek lortzen zutenari jarraitu ezin izatea zekarren. Maila galtze horren ondorioz, askotan, neskek ez zituzten ikasketak jarraitu nahi izaten, eta hezkuntza zegokien baino lehenago uzten zuten.

«[Lurra lantzeko makina pasatzea] ez zen lan gogorra. Bridekin gora igo eta gidatu besterik ez nuen egin behar, makina desbidera ez zedin, baina etxerako lanak egiteko denbora kentzen zidan, eta hurrengo egunean irakasleak zigortu egiten ninduen ez egiteagatik. Ez dakit zenbat aldiz kopiatu dudan: 'etxerako lanak egin behar ditut, etxerako lanak egin

behar ditut?... Esaldi hori ez zait inoiz ahaztuko». (9. Elkarrizketa)

«Lanik ez zegoenean joaten nintzen, euria ari zuenean. Niri, azkenean, lotsa ematen zidan joateak, besteen erritmoa jarraitzen ez nuelako». (14. Elkarrizketa)

Emakume horiek hazi zireneko gizarteak desberdintasun sozial handiak zituen. Generoa desberdintasunen arrazoi bat zen, baina ez bakarra; klase sozialak edo hiriko edo herrikoak izateak ere desberdintasun garrantzitsuak markatzen zituzten.

Desberdintasun horiek agerian geratzen ziren, batez ere, landa-eremuko emakume gazte horiek lehen mailako irakaskuntza 14 urterekin amaitzea lortzen zutenean, lehen mailako ziurtagiria ateratzeko aukera baitzuten, eta, horretarako, Gasteizera joan behar zuten. Erosteke ahalmen mailaren arabera, batzuetan ikasten jarraitzeko aukera bat Ursulinetan (eskola erlijioso batean) sartzea zen non, hezkuntzaz gain, edo, hobeto esanda, heztearen truke, neskek ikastetxea zaindu eta garbitu egiten zuten.

«Mojak oso azkarrak ziren. Desberdina zen ordaintzen zutenentzat eta ordaintzen ez zutenentzat. Gogoan dut Larreako neskato bati atean esan ziotela sartu aurretik aurpegia garbitzeko. Eskola oso ona zen eta niri oso ondo etorri zitzaizkidan bi urte haiek han. Asko ikasi nuen eta oso pozik nago horra joan izanaz». (6. Elkarrizketa)

Hala ere, herriko lehen mailako irakaskuntzaren ondoren, ohikoena zen neskek hezkuntza gehiago ez jasotzea, josteko eta etxeko lanak egiteko eskolak izan ezik.

«Etxeko emakumea izaten irakasten ziguten. Etxekoandreak izateko prestatzen gintuzten. Seme-alabak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, josteko...». (2.

Elkarrizketa)

Hezkuntza herrien artean hain desberdina den testuinguru horretan, irakaslearen figurak berebiziko garrantzia hartzen zuela ikusten dugu.

Emakume batzuentzat, izan zuten maistra edo maisua ikasten jarraitzera bultzatu zituzten figurak izan ziren, eta haientzat berebiziko erreferenteak. Hala ere, irakasleen tratu txarren testigantzak ere badaude, eta horien ondorioz, bai eta maila berdintasun ezaren ondorioz ere, hezkuntza formala bertan behera uzten zuten.

«Nagusitan ere bai. Igandetan Urbinara mezatara joaten nintzenean, bere etxetik pasatzen nintzen zer moduz zegoen ikusteko. Oso pertsona ederra izan zen, eta irakasle bikaina. Azkenean Lezan ospitaleratu zuten. Hor egon zen urte batzuk... Niretzat beste aita bat bezalakoa izan zen». (5. Elkarrizketa)

«'Cara al sol' abestu behar genuen eta ez genekien. Gero 'España' oihukatzen zuen, eta 'una' esan behar genuen, eta berak berriro 'España' esaten zuen, eta beti zegoen baten bat 'libre' esan beharrean 'dos' esaten zuena, eta egundokoa sortzen zen... Eskolatik irtetean, irakasleari agur eta 'ongi pasa' esan behar genion... baten batek 'gaizki pasa' esaten zuen arte, eta orduan denok barrura berriro. Eta orduan pin pan, pin pan... [...] Etxe horretako mutikoak gaizki portatzen zirenean, jan gabe zigor zitzaten arduratzen zen. Gizon gaiztoa zen. Ogia botatzen genien leihotik...».

Arrazoi batzuentatik edo besteengatik, askotan belaunaldi horretako emakumeek eskola utzi zuten, eta erabaki pertsonala dela uste dute. Hala ere, emakume guztiek bat datoz beste era batera izatea gustatuko litzaiekeen

gaietako bat dela esatean: *Ikasi izan banu, iraun izan banu, jarraitu izan banu... gutxienez eskola amaitu arte...* Hezkuntza formala arantza bat bezalakoa da, emakume horien gutzien bihotzean iltzatuta eramaten dena. Kasu batzuetan, argi dago familiaren egoerak eragindako erabakia izan zela; beste batzuetan, agian etxeok ez zituzten animatu eskola uztera, baina denboratestu-inguruak eta testuinguru geografikoak eskolan jarraitzeak 14 urteko neskato batek kudea zezakeena baino ahalegin handiagoa suposatzen zuen. Horren ondorioz, emakume horiek eskola uzteari buruzko hasierako premisa planteatu behar dugu. Har zitekeen erabakia al zen? Haiek hartu al zuten?

Eskolan, beraiek dioten bezala, merkatuan saltzeko eta irakurtzeko oinarritzko lau arauak ikasten zituzten. Eta ez zuten gehiago ikasten; izan ere, emakume gisa, beren gaitasuna, oroimena, adimena edo trebetasunak gorabehera, ez zuten gehiago behar haiengandik zaintzan aritzea besterik espero ez zuen gizarte batean. Eta, gainera, etxeko lana jaiotzatiko zerbait bezala ikusten zen, eta, horretarako, emakumeek gaitasun gehiago zituzten. Hala ere, bizitza-istorio horiek ikusten uzten digutenez, zaintza-trebetasunak ez dira genetikaren kausa; aitzitik, txiki-txikitatik ikasten zituzten, batez ere etxean.

Kontatzen dizkiguten egoerak liburu honetan beren bizitza kontatzen duten emakumeak bezain askotarikoak dira. Hori hala da bizitza bakoitza bakarra delako eta emakume izateak markatzen duelako. Halaber, protagonisten familien okupazio profesionalak, nekazaritzak eta abeltzaintzak, familiaren fede gutxi gorabehera errotuak, lurrak edukitzeak eta, batez ere, beren amen figurek (nola izan eta nola egin irakatsi zieten emakume ezezagun eta langile horiek) markatzen dute.

ERLIJIOA

Eliza izan da emakume horien bizitzan zehar eragin erabakigarria izan duen beste faktoreetako bat. Esperientziak, batez ere gai honetan, bakarrak eta askotarikoak badira ere, esparru komun bat ezar dezakegu: frankismoak ezaugarritutako une historiko batean gaude. Diktadura garaian, eta Falange Españolaren Emakume-Atalaz eta Elizaz baliatuz, emakumeak hezten zituzten ama, emazte eta etxekoandre onak izateko, ezkontza edozerren eta familiaren batasunaren aurretik jarriz.

«Jaio eta bost egunera bataiatu gintuzten. Garai haietan lehenik eta behin bataiatu behar zintuzten».

(3. Elkarrizketa)

Lehen oroitzapenei buruz galdetzen diegunean, askotan igandeko mezei, arrosarioei eta Aste Santuko prozesioei buruz hitz egiten digute, haien haurtzaroko eta gaztaroko funtsezko elementu gisa. Gainera, guztiek diote bizitza jai erlijiosoen inguruan antolatzen zela.

«Pausoekin ateratzen zen. Hori asko egiten zen Albaitan, eta buelta handia ematen zen herri osoan». (2. Elkarrizketa)

«Gogoan dut igandetan egunsentiko arrosariora joaten ginela. Goizeko zazpi eta erdietan zen, eta goiz joan behar genuen iritsi ahal izateko».

(11. Elkarrizketa)

Erljioak gidatutako gizartea zen, eta horrek moralitasuna kontrolatzen zuen. Are gehiago, gizartea, eta batez ere emakumeak, konbentzitzen saiatzen

zen sexu-harremanen helburua ugalketa zela, betiere ezkontzaren barruan, noski. Eta ezkontzak funtzionatzen ez bazuen, erantzukizuna emakumearena zen, oso kasu nabarmenetan izan ezik.

Erlijioa, bekatuaren kontzeptua bereziki, emakume guztiek onartzen zuten, eta horrek kontaketa guztiak zeharka baldintzatzen ditu: bai lagunak edo ezkongai-aldiak eta bai norberaren lan eta ekonomia aukerak... Hala ere, haien ustez bekatuak ez zuen pisu bera gizonentzat eta emakumeentzat, azken horiek «gehiago babestu behar zirelako».

«Bekatuak menderatu ninduen, zer esango zuen jendeak, nola utziko duen senarra horrela... baina nik esango niokeen: Honaino iritsi naiz, ezin dut gehiago jasan». (1. Elkarrizketa)

«(Lagun) pare bat ditut, ezkondu aurretik elkar ukitu ere egiten ez zutenak. Nik ez. Ni elizagatik ezkondu nintzen kristaua naizelako. Ez dut asko praktikatzen, baina noizbehinka joaten naiz... baina Elizak ez du inoiz horretan eragina izan. Zer zerikusi du elizak nire mutil-lagunari musu ematearekin edo berak ni ukitzearekin? Ezkongaietan elkar ezagutzeko normalena denetarik egotea izango da, ezta? « (13. Elkarrizketa)

Nire neba? Ez, bera arrosariorik ez..., bost urte gazteagoa zen, baina batez ere mutila eta, jakina, beti neskak... badakizu... gehiago babestu behar ziren».

Maisu-maistrekin gertatzen zen bezala, apaizaren figurak ere garrantzi handia hartzen du istorio guztietan. Apaizen abusuen testigantzak aurkitu ditugu, eta haien autoritateaz abusatzen zuten pertsona gisa agertzen dira, batez ere gazteenekin.

«Igande arratsaldeetan, arrosarioaren ondoren, katekesira joaten ginen. Ez dut apaiz horren

oroitzapen onik. Batez ere mutilak jotzen zituen, neskak ez. Baina benetan jotzen zituen. Astindu egiten zituen. Gaur salagarria litzateke. Katekesian, ikasgai bat esaten bazenion, beste bat eskatzen zizun eta gero beste bat eta beste bat... paseoaren ondoren eta afaldu aurretik apaizari bisita egin behar zitzaion berriro. Beste azalpen aspergarri bat kontatzen zizun berriro. Ez naiz ezertaz gogoratzen, oso aspergarria zen. Gutxienez ordu erdi bat pasatzen genuen han afaldu aurretik. Baziren gurasoak gure bila zetozenak etxera joan gintezen». (14. Elkarrizketa)

Hala ere, badira apaizak bizi-erreferentzia gisa gogoratzen dituzten emakumeak ere. Emakume asko joaten ziren horiengana aholku bila, eta horiengandik ikasbide eta irakaspen handiak lortu zituzten, gaur egun arte gordetzen dituztenak.

«Niri apaizak bi aholku eman zizkidan, bizitza osoan lagun izan ditudanak. Esan zidan: Begira, Bego. Herri batean ezkondu behar baduzu, egin bi gauza etxetik irten aurretik: Atera gidabaimena (bestela han harrapatuta egongo zara) eta konpondu ahoa irribarre egiten jarrai dezazun, beti egin behar baita irribarre, nahiz eta oso handia izan pena. Eta aitak *baimena* eman zidan gidabaimena ateratzeko apaizak esan zidalako. Hori bai, azterketara aurkezteko laguntza soziala egin behar izan nuen, hau da, galdera batzuk erantzun eta trapu txiki bat josi. Eta horretarako izeba maistrak lagundu zidan». (4. Elkarrizketa)

«Oso ondo pasatu genuen egun horietan apaiz horrekin. Oso berezia zen. Nora gindoazen

arabera, sotana jantzi eta erantzi egiten zuen. Han zeuden pertsona aberatsei dirua eskatzen zuen behartsuenetan inbertitzeko». (6. Elkarrizketa)

«Nire lehengusina batek apaizari dena kontatu behar zion. Gu ez ginen mezetara asko joaten. Jaietan, hiletetan, Corpusean... joaten ginen, baina eguneroko meza goizeko sei eta erdietan izaten zen, gero jendea landara joaten zelako. Hala ere, bekatuaren presioa gogoratzen dut, baina ez beste neska batzuk bezainbeste». - (7. Elkarrizketa)

Elizaren eragin-eremua eta apaizak herri batzuetan izan zezakeen kontrola ez ziren erlijiora mugatzen. Apaizak kontaktu eta botere asko zituzten pertsonak ziren, eta horrek aukera ematen zuen familia guztientzat oso onuragarriak ziren lanpostuak edo kontaktu sozialak lortzeko.

«(nire ahizpak)... poliki-poliki joaten ziren. Bat «Fournierren» lan egiten hasi zen. Orduan oso erraza zen. Aberasturiko apaizari esker sartzen ziren, bera ere han baitzegoen. Apaizek lantegietan sartzen zituzten auzokoak. Herri hauetatik mutiko asko joan ziren». (1. Elkarrizketa)

Askorentzat, erlijioa izan zen senarren herrira bizitzera joaten zirenean atxiki ahal izateko babes ezaguna. Familia guztiek ez zuten fede bera, eta, eskuarki, emakumeei gehiago zegokien fedea familiari transmititzea gizonei baino.

«Igandetan ezkutuan jaiki eta Abetxukuko Kristorengana joaten nintzen ezer esan gabe. Bederatzietako meza entzun eta ogiarekin itzultzen nintzen, igandetan okinik ez zegoelako. Haiek ogiari begiratzen zioten, baina ez zuten ezer esaten, ezta nik ere, ez baitzen horretaz hitz

egiten». (4. Elkarrizketa)

Elkarrizketatutako emakumeak, bizitzan zehar, diskurtso hori bizi, sinetsi eta bere egin zuten, baina urteak igaro ahala, ikus dezakegu, testigantza batzuetan, Elizaren diskurtсотik aldentzen direla. Telebistak, aurrerapen sozialek, eztei-bidaiak, turismoak eta hainbat aldaketa sozial hasiberrik zalantzan jartzen zituzten sinesmen horiek, askorentzat haurtzaroan eztabaidaezinak izan zirenak.

Gaur egun erlijioari buruz galdetzen diegunean, nahiz eta askok erantzuten duten oraindik ere beren bizitzako ezinbesteko zati bat dela, beste batzuek esaten digute «erlaxatzen» joan direla, edo jada ez dela hain garrantzitsua beren bizitzetan.

«Iganderen batean larritu egiten naiz, ez pentsa. Hemen meza dugu igande batean bai eta bestean ez. Hemen ez dagoen astean, Zerion dago, eta Gasteizen banago, elizaren ondoan bizi naiz». (4. Elkarrizketa)

«Orain nahi ez duena... ez doa. Nik ondo ikusten dut, e! Apaizek ere azkartu behar dute, San Isidro egunean mezan ordubete baino gehiago eman genuelako. Inoiz joaten ez den jendeari ordubeteko meza ematen badiozu... Inoiz itzultzeko gogoia ematen du!» (12. Elkarrizketa)

GAZTAROA

Eskola 14 urterekin amaitu ondoren, emakume horien gaztaroa hasten zen. Haurtzaroan ez bezala, etapa hori mutilen eta nesken arteko alde handiekin gogoratzen dute. Mutilek, oro har, ikasten jarraitzen zuten edo erantzukizunak hartzen hasten ziren, bai familia-finketan, bai ustiategietatik kanpoko lan ordainduetan. Hala ere, familiaren ustiategiko lana ere mantendu egiten zen.



A. Ochoak utzitako argazkiak

Hala ere, neskentzat, gaztaroa izan zen etxeko zaintza landa-lanarekin uztartu behar zuten lehen etapa, normalean ordaindu gabea.

Atzera begiratura, askok sentitzen dute gaztaroko urte horiek sakrifikatu zituztela familien edo ustiategiaren onerako.

«Ni guztion jasailea izan naiz, Errauskine, tontolapikoa... Esan beharra daukat pertsona ona eta pertsona ergela izatearen arteko muga oso mehea dela, eta bizitzan planto egin behar dela. Izan ere, garai hartan isildu eta lasaitasuna egon zedin edozer

egiten zenuen». (1. Elkarrizketa)

Baserritik kanpoko oroitzapenei buruz galdetzen zaienean, batzuek Emakume-Atalak urtero antolatzen zituen gazteentzako topaketak aipatzen dituzte, non josteko eta sukaldaritzako hitzaldiak eta tailerrak antolatzen ziren. Bilera horiek baliagarriak ziren gaztetatik emakumeei ideal femenino baten aginduak irakasteko. Ideal horren arabera, etxeoandrea izatea zen emakumeen funtzio nagusia.

Gizarte Zerbitzua deitzen zioten. Gauzak irakasten zizkizuten eta gero puntuatu egiten zintuzten. Egun batean, mahaia zerbitzatu behar zenien nagusiei edo haien gela garbitu. Guk hamar bat atera genuen garbiketari. Armairuak goitik garbitu genituen. Gero soldadutzaren antzeko gauzak zituen: Oinez zindoazen eta andreak esaten zizun: Gora bular hori. Zuzen joateko jarrerak». (7. Elkarrizketa)



A. Ochoak utzitako argazkia

Bizipenak asko aldatzen dira familia batetik bestera, eta askatasun gehien zegoen familietatik datozen emakumeek ere badakite garai hartan gazteriaz gozatzea gutxirentzat gordetako pribilegioa zela.

«Garai hartarako askatasun handia eman ziguten. Garai hartan ez zen normala 18 urteko neska

batzuk Logroñora Urtezahar gauean edo Lodosara San Blasetan joatea... Lau neba-ahizpak elkarrekin joaten ginen. Egia esan, asko gozatu genuen». (6. Elkarrizketa)

«Lagundu dugu, baina nire etxean ez dugu lan hori izan. Ezagutzen ditut ezpainak eta azazkalak margotzen uzten ez zieten neskak. Nire familia oso aurrerakoia zen, baina nire adineko neska batzuek oso familia itxiak zituzten». (7. Elkarrizketa)

Hala ere, gaztaroa inguruko herrietako lehen dantza eta jaien garaia ere izan zen, eta emakume gehienek oso oroitzapen onak dituzte garai horretaz.

Nebek ez bezala, etxera iristeko ordu zorrotzak zituztela gogoratzen dute. Familia guztietan ohikoa zen «gizonen» arriskuaz ohartaraztea eta, nahiz eta haiek ez ulertu zer esan nahi zuten haien familiek, bazekiten atzeratzeak eta ez iristeak zer ondorio izango zituen.

Mutilek, oro har, askoz askatasun handiagoa zuten, bai ordutegiari, bai mugimenduari dagokienez. Ohikoa zen neskek familia zuten herrietako dantzaldi eta jaietara bakarrik joatea, edo baita heldu batek lagunduta joatea ere. Mutilak, berriz, beranduago itzul zitezkeen, eta «bazterrak gehiago nahasi» arren, ez zieten inoiz trabarik jartzen irteteko.

«Mutilek ez, mutilekin uste dut beti izan dela beranduago. Nik ez nuen neba-ahizparik... baina lehengusuek ez zuten ordu horretan itzuli behar». (7. Elkarrizketa)

«Ondo pasatzen genuen, baina alde handia zegoen mutilen eta nesken artean. Neskek mutilek baino lehenago itzuli behar genuen beti. Mutilek nahi zutenean, baina neskek goiz joan behar zuten etxera. Gehien geratzen zena... «adelangui» omen zen... Bizitza horrela zen. Hori da dena». (10. Elkarrizketa)

Dantzaldira sartu nahi genuenean, nire herrian, neskei joaten uzten ziguten soilik ama bat joaten bazen gurekin. Eta 24 ginen. Dantzaldira sartzen zen gurekin, eta amaitzean etxean uzten gintuen. Egun bakoitzean ama bati tokatzen zitzaion joatea». (13. Elkarrizketa)

Dantzaldiez gain, batzuek gogoan dute lagunekin paseatzera joatea, baita zinemara ere, eta horrek jaietara joateak baino askoz baimen gutxiago eskatzen zituen, eta hori horretarako ahalmena zuten familietan hobeto ikusten zen.

«Zinemara joateko ez zegoen baimen-arazorik etxean, baina dantzaldira joateko... hori beste gauza bat zen, eta Agurainen jai-aretoa inauguratu zenean, are okerrago. Nire aitak esaten zuen: ‘Kontuz ibili, kontuz ibili! Ero moduan zabilzate!’ eta zuk ulertzen zenuen esan nahi zuena, eta ez zegoen gehiago esan beharrik». (8. Elkarrizketa)

Familientzat, gaztaroko urteetan alaba batek aurre egin ziezaiokeen arriskurik handiena «mutilekin egotea» zen. Iristeko ordu zorrotzak emakumeak babesteko mekanismoak ziren. Mutilekin kontuz ibiltzeko ohartarazpenak etengabeak ziren eta ametatik alabetara transmititzen ziren. Horretarako, haurdun geratu ziren auzokideen istorioak erabiltzen ziren, eta horiei kasu ez egitearen ondorioak familietatik bertatik etortzen ziren batzuetan.

«Zu kontuz ibili mutilekin. Askotan esan zidan hori izebak, baina inoiz ez zidan horrelakorik azaldu. Oso isila zen». (9. Elkarrizketa)

«Aldea zen ni berandu iristen banintzen, denetatik deitzen zidatela, konbentzituta zeudelako atzeratzen banintzen behar ez nuen zerbait egiten aritu nintzelako izango zela. Aitak askotan ‘zerria’ deitu dit horregatik. Nire nebei, ordea, berandu iristen

baziren, atea ixten zieten eta kito». (14. Elkarrizketa)

Nahi gabeko haurdunaldiari, «ama ezkongabea» izateari zeukaten beldur horrek mugimendurako eta ekintzarako askatasuna mugatzen zien. Beren nebek ez bezala, haiek ezin zuten nahi zuten lekura bakarrik joan, ordutegi murritzailleagoak zituzten eta «bekatari eta haragikoi» bihurtzeko etengabeko kezkan bizi ziren.

Elkarrizketa guztiek ez dituzte etapa honetako oroitzapen hain positiboak. Izan ere, hainbat biografiatan ez da existitu ere egiten. Batzuetan, haurtzarotik helduarorako urratsa berehalakoa izaten zen, eta emakume askok diote, eskola amaitu aurretik ere, etxeko erantzukizun guztiak beren gain hartu behar izan zituztela. Dibertitzea, beste gauza asko bezala, pribilegioa zen.

Zalantzarik gabe, gazteria, orokorrean, aldaketa garaia zen. Haurtzarotik helduarora igarotzean, emakume horiek aldaketa sozialei eta kulturelei ez ezik, fisikoei ere aurre egin behar izan zieten.

«Emakume bihurtzea» misterioa izan zen horietako askorentzat. Batzuek diote amak azaldu ziela zer zen hilekoa, baina sexualitatea gai tabu bat izan zen ia guztientzat, «*lagunen artean hitz eginez eta ahapeka*» ikasten zutena. Ideal katolikoak bereziki indartuta, gai horiei guztiei buruz jendaurrean hitz egitea oso gaizki ikusia zegoen. Hori dela eta, gaiari buruzko ezjakintasun eta ulertezintasun handia zegoen emakumeen artean.

«Lagun bat genuen, gurasoek horri buruzko zerbait kontatu ziotena, eta berak kontatzen zigun zerbait guri. Beste etxeetan ezer ez». (9. Elkarrizketa)

Emakume horien gaztaroa autonomia eta independentzia keinu txikiak lortzeko borroka beteta dago, jarrera hartze soziala eskatuko luketenak. Oro har, gizartean ez zeuden ondo ikusita.


Prakak, landan lan egiteko gonak baino erosoagoak zirenak, eramatea bezalako ekintza iraultza bat izan zen emakume horietako bakoitzarentzat. Batzuek ez dute inoiz jantzi, baina beste batzuek moda askatzaile, eroso eta praktikoko bati heldu zioten, lan egiteko, irteteko, jantzeko...

«Nire aitona ezusteko bat izan zen. Esaten zuen gustatzen zitzaiola guk gauza modernoak eramatea. Amak lagundu egin zigun, baina bazegoen jendea hori oso gaizki ikusten zuena, eskandalu bat bezala, elizan mantelina ez eramatea bezala, galtzerdirik gabe joatea bezala...». (7. Elkarrizketa)

«...ezkongabe nintzela, ez nuen inoiz praktarik erabili kalean, baina lastategian egoteko jantzen nituen, gonak baino askoz erosoagoak zirelako. Izebak batzuk egin zizkidan lastategian lastoarekin egoteko. Osabak, lanerako bakarrik zirenez, ez zuen ezer esan. Jantzeko gauza horietan ez zen asko sartzen». (9. Elkarrizketa)

«Bizikletan eta gonekin gindoazen, hotz handia egiten zuen. Nik ez nituen praktikak jantzi ezkondu arte. Eztei-bidaian erosi nituen batzuk... Orain bezala! Orain ez ditugu kentzen... Baina garai hartan gaizki ikusten zen neska batek praktikak jantztea; beraz, bizikletan joaten ginen, baina gonekin beti». (10. Elkarrizketa)





A. Ochoak, M.Román-ek, C.Lpz de Sabandok eta M^aP.-ek utzitako argazkia.

Normalean, gaztaroa ezkongai-garaiarekin amaitzen da. Emakume batzuek ezkongai oso luzeen istorioak kontatzen dituzte, 4 edo 5 urte artekoak, bien bitartean soldadutza egiten zuen, eta senargaia familiako kide bat gehiago zen. Beste batzuk, berriz, laburragoak ziren denboran, baina, nolana ere, ezkontzaren atariko izaten zen ohikoena. Senargaiak dantzaldietan, jaietan edo lagunen edo familia komunaren bidez ezagutzen zituzten. Hala ere, emakumeek ez zuten inoiz iruditu behar senargai hori aurkitzeko interesa zutenik. Horregatik, emakumeak janzteko orduan beti bilatzen zen eratasuna, askotan familietan inposatuta.

«Oso argi zeukaten garai hartan. Zenbat eta gehiago estali, hobe. Dantzaldira soineko bakarrarekin joaten ginen, eta Antezanatik Pobesera oinez joateko eramaten genituen zapatilak kanpoan ezkututzen genituen. Gogoan dut estolda batean utzi eta dantzarako zapatatxoak janzten genituela. Amak lan asko egiten zuen, asko; ez zuen josteko astirik. Arropa jostun batek egiten zigun, eta ez zen inoiz eskote edo mahuken inguruko eztabaidarik izan. Hori bai, ezkondu aurretik prakak jantzita neuzkan».
(15. Elkarrizketa)



E. FZ de Troconizek utzitako argazkia

Normalean, batez ere landa-eremuan, non ia familia guztiek elkar ezagutzen zuten, familiarekin ez zegoen arazorik harremana onar zezaten. Horietako askok 20 bat urte zituztenean ezagutu zuten beraien lehen eta azken senargaia, eta horietako batzuk lehenago ere bai. Luzeagoak edo laburragoak, ezkongai-aldiek beti modu berean amaitzen zuten: Elizan.



A. Ochoak utzitako argazkiak

EZKONTZA ETA AMATASUNAK

Ezkontza zen ezkongai-aldiaren jarraipen logikoa. Emakume guztiek antzeko istorioa kontatzen dute: ezkongai-aldiak urte batzuk irautesen, ondoren familiak ezkontza antolatzen zuten eta jende guztia ados egoten zen. Adina pixka bat aldatzen den arren, normalean nahiko gazte ezkontzen ziren, 25 urte ingururekin.

«Aurten urrezko ezteiak ospatuko ditugu. Ni oso gazte ezkondu nintzen, 23 urterekin. Lehen horrela zen, baina goizegi da. Hori bidegabekeria da. Niri orain biloba batek esaten badit 23 urterekin ezkonduko dela, nik esango nioke 30 urte bete arte itzaroteko eta asko pentsatzeko, gero ikusiko dugula...» (14. Elkarrizketa)

Ezkontzak, batzuetan neba-ahizpekin edo herriko pertsona gehiagorekin partekatzen zirenak, zeremonia oso familiarrak izaten ziren eta, horien ostean, ohikoa zen eztei-bidaia bat egitea Espainian barrena, autoz.

«Bidaian atera ginen eta ez genekien nora gindoazen ere. 'Bi zaldi' kotxea hartu genuen. Matrikula bera ere gogoan dut! Gasteizko 20625, eta Cadizera jaitsi ginen, Gibraltarreko haitzeraino». (2. Elkarrizketa)



M.Fz de Larreak utzitako argazkia

Itzultzean, normalena zen emakumeak senarraren etxera joatea, nahiz eta zenbait emakumek esaten duten, egoera zehatzengatik, beraiek etxean geratu zirela eta senarrak izan zirela etxez aldatu zirenak. Etxe horietan, emakumeak senarrekin ez ezik, aitagarrebekin, koinatuekin eta senarraren familia zabalarekin ere bizi ziren.

«Logikoki, bere herrira joan behar nuen bizitzera, bere etxera. Garai hartan bestea baino askoz normalagoa zen. Joan beharra nuen eta horrela erabaki genuen. Gainera, ni iritsi nintzenean, ez zuten animaliarik. Nire etxean lau behi zeuden, baina hemen, nire senarra soldaduskara joan zenean kendu zituzten». (12. Elkarrizketa)

«Badakit normalena dela emakumea senarraren etxera joatea aitagarreba eta koinatuekin bizitzera, baina begira, nik ez dut hori bizi izan... Aitona ere nire amonarena zen etxe honetara etorri zen bizitzera». (8. Elkarrizketa)

Egoera berrira egokitzea batzuetan zaila zen. Normalean, herria, familia eta haurtzaroko eta gaztaroko gizarte-harreman guztiak atzean uztea ere bazekarren. Gainera, senide politikoezekiko harremanak ez ziren beti errazak izaten: askok lehen urteak estresagarri edo frustragarriak zirela gogoratzen dute, eta azpimarratzen dute etxe berrietan ez zituztela aintzat hartzen ezertarako.

«Ez nengoen eroso. Gaizki iruditzen zitzaie-
nik edozein ekimen hartzea ere. Behin aurpegiratu
zidaten txerri batzuk kobratu nituela haiek han ez
zeuden egun batean. Ostegunetan pozik egoten
nintzen, haiek Gasteizera joaten zirelako. Baina
bueltatzen zirenean oso triste eta larri jartzen
nintzen. Igandetan Aberasturira joaten ginen eguna
pasatzera eta ez nuen itzuli nahi». (14. Elkarrizketa)

Hala ere, askoren ustez, senide gehiago egoteak etxeko lanak eta landa eremuko lana uztartzeko laguntza eman zuen. Amaginarrebaren figura, batez ere, laguntza handia izan zen kasu askotan seme-alabak hazteko.

«Oso pertsona ona zen eta oso ondo
konpontzen ginen. Berehala pasatu zizkidan
tresnak...». (15. Elkarrizketa)

Gaur egun, atzera begira, askok diote intimitate gehiago nahi izango zuketela, edo denbora batez bakarrik bizi. Nahiz eta guztiak oso harro egon beren ezkontzekin, aldatu egingo lukete beren etxeak hainbeste denbora partekatu izana.

«Nik esan ohi dut: Intimitatea, noiz izan dut
etxean? Aitona-amonak ez bazeuden, koinatua
zegoen. Bestela, beste koinatak etortzen ziren...
ene... 76 urterekin bakarrik geratu gara etxean. 76
urterekin... eta bizikidetzara oso zaila da. Hori bizi egin
behar da». (2. Elkarrizketa)

«Nire aitaginarrebak hemen bizi izan ziren

bizitza osoan, nire alabak 16 edo 18 urte zituen arte, bizitza osoan... bizitzaren etapa onenean. Azkenean, aitona-amonen etxea da, eta mundu guztiak du hara joateko eskubidea. Eta nik ez dut esaten gaizki egon denik, baina niri askatasun handiagoa izatea gustatuko zitzaidakeen; baina tira, horrela egin zen».

(10. Elkarrizketa)

Nabarmendu beharra dago beste garai batzuk zirela. Nahiz eta 60ko hamarkadan familiak erosteko ahalmen handiagoa izaten hasi eta aurreko arau sozial eta moralak erlaxatzen hasi, familiako pertsona bakoitzaren rolek oraindik oso markatuta jarraitzen zuten. Era berean, alderdi askotan ez ziren usadioak eta ohiturak soilik, baizik eta legeak berak ezartzen zuen emakumea gizonaren mende zegoela, lehenik aitaren eta gero senarraren mende.

1972ra arte, adin-nagusitasuna 21 urtekoa zen, eta 25 urtetik beherako emakumeek aitaren baimena behar zuten independizatzeko, bi salbuespenetan izan ezik: ezkontzea edo ordena erlijioso batean sartzea. Ohikoena zen bi aukera horiek ere aitaren baimena behar izatea.

1975era arte, emakumea legez «senarrari jarraitzera behartuta zegoen, bere bizilekua finkatzen zuen edozein lekuan», Kode Zibilak hala ezartzen baitzuen. Horri gehituta, emakume ezkonduak senarraren baimena behar zuten pasaporte ateratzeko. Lan egiteko ere muga gehiago zituzten, senarraren sinadura behar zutelako. Ezkongabeek, pasaporte ateratzeko, gizarte zerbitzua egin zutela erakusten zuen egiaztageria besterik ez zuten behar, «emakumeen soldadutza» moduko bat.

Adulterioa emakumeena baino ez zen, gizonen kasuan ohaidetzaz hitz egiten zelako. 1978ra arte zigortuta egon zen, eta Zigor Kodeak jasotzen zuenez, zigorra «laidotutako senarrak» kereila bat jartzearen mende geratzen zen. Senarraren esku geratzen zen, halaber, zigorra betetzea eteteko gaitasuna, epailearen baimenarekin.

1981era arte, legez, irabazpidezko ondasunak edo guraso-ahala aitarenak

ziren. Aitaren autoritatea kode zibilak ematen zuen. Era berean, urte horretan sartu zen berriro dibortzioaren figura lege-esparruan.

Beste garai batzuk ziren, ezkontza bizitza osorako zen, eta familiak egitura argia zuen: amek eta ondorengoek aitaren nahiei eta figurari erantzuten zieten, bakoitza bere eginkizunekin. Seme-alabek esanekoak izan behar zuten, eta emazteek langileak, zaintzaileak eta ulerkorrak; seme-alaba horien nahien eta aitaren autoritatearen arteko bitartekariak.

Gure liburuko protagonistek, oro har, iritzi ona dute beraien senarrei buruz. Laguntzat jotzen dituzte, eta askok diote, aukera emango baliete, inolako zalantzarik gabe, beraiekin ezkonduko liratekeela berriro.

«Nire senarra laguntza izan da beti. Inoiz ez dit ezeren trabarik jarri, ezta ezeri ezetz esan ere. Aitzitik, beti babestu izan nau». (2. Elkarrizketa)

Ohikoena zen, ezkontzatik urte gutxira, lehen haurra iristea. Amatasun-erantzukizuna eta horrek dakartzan zainketak etxea eta ustiategia «aurrera ateratzeko» behar den lanari erantsitako lan-karga dira. Hori gehiegizkoa zen batzuetan.

«Urtebete ere ez, bederatzi hilabete izango ziren... Ni maiatzean ezkondu nintzen eta bera otsailean jaio zen. Ez genuen denbora asko behar izan». (2. Elkarrizketa)

Garai hartan ez zen kontziliazioaz hitz egiten. Askok diote landan lan egitearen gauzarik gogorrenetarikoa oporrik ez izatea dela. Patatak etengabe hazten ziren erditze bat izan arren, eta abereak elikatzen jarraitu beharra zegoen. Hazkuntza-garaia benetan lanaldi bikoitza edo hirukoitza zen emakumeentzat.

«Ni erremolatxa ateratzen ari nintzen, hilabete izango zuen umearekin... gutxienez 8 langile zeuden eta jaten eman behar zitzaien». (3. Elkarrizketa)

Etxeko eta familiako zaintzaren zama emakumeen gain geratzen zen

erabat. Gizonek etxetik kanpo egiten zuten lan, baina barruan ez. Askok uste dute hori garai hartan zer bait «normalizatu» zela, eta inguruak ere ez zuela mesederik egiten senarrak lankidetzan aritu zitezen.

«Gogoan dut egun batean janztera igo behar nuela, eta bitartean (nire senarrari) alabetako bat orrazteko eskatuniola. Jaitsinintzenez, amaginarreba ikusi nuen alaba orrazten. Zergatik ez ote zuen berak orrazten galdetu nion, eta amaginarrebak erantzun zidan: A zer gauzak dituzun! Nola egingo du berak?» (6. Elkarrizketa)

«Bada nik bakarrik. Nire amaginarreba kanpoan bizi zen eta jaiotzetarako zetorren. Denboraldi bat geratzen zen eta gero... ni bakarrik, nire senarrarekin gauza askotarako kontatu ahal zelako, baina haurrak zaintzeko edo sukaldea jasotzeko... ez». (8. Elkarrizketa)

Izan dituzten haurtzaroak beren ondorengoei emandakoarekin alderatzen dituztenean, ezberdintasun asko ikusten dituzte. Ia emakume guztien seme-alabek unibertsitate-ikasketak dituzte, eta horietako oso gutxik jarraitzen dute familiaren ustiategiarekin. Batzuei pena pixka bat ematen badie ere, ez diete inoiz presionatu, ez behintzat kontzienteki, ideiaz alda dezaten.

«Ez da nik ez ditudala animatu. Nik beraien ikasketak eta bizitza jarraitzera animatu nituen, eta nire senarrak adoregabetu egin zituen». (2. Elkarrizketa)

«Hemen ez da inor geratzen horretan, eta ni pozten naiz nire seme-alabek kanpoan lan egiteagatik. Geratzearena begiratu zuenari KASen sartzeko aukera atera zitzaion, bere aita bezala, eta nagusia ere TUVISA n dago». (9. Elkarrizketa)

Belaunaldi-erreleboa izan duten familiak harro daude familia-sagak lurrari lotuta jarraitzen duelako, baina oso kontziente dira landa-lanak dituen aldaketa azkarrez eta baldintzez, eta ez dute inoiz presionatu beren seme-alabek erabaki hori har dezaten.

«Niri ondo iruditu zitzaidan berari gustatzen zitzaiolako. Nire senarrak esan zion aukeratu zuenean: Lana ez zaizu faltako eta dirua ez duzu inoiz izango. Guk ez genion trabarik jarri, eta pozik nago bere aitona-amonek hasitako eta guk jarraitutako lanarekin jarraitzen ari delako». (12. Elkarrizketa)

LAN-IBILBIDEA

Zaila da emakume horien lan-ibilbidea isolatzea. Gehienek ez dakite hasiera zehatz bat markatzen, eta lehen «betidanik lan egiten zela» kontatzen dute.

Horietako emakume batzuek lanean eman zituzten lehen urteetatik kotizatu dute, gurasoek edo aitonek haiengatik kotizatzen zutelako, nahiz eta ohikoena ez izan; gehienek helduaroen bakarrik kotizatu zuten, eta, batzuetan, ezta urte horietan ere.

«Nire gurasoek oso ongi egin zituzten gauzak.

Hori da egia. Nire anaiari, traktorearekin zebilenari, aseguru gehigarri bat jarri zioten, gidatzen edozer gauza gertatzen bazitzaion ere». (6. Elkarrizketa)

Emakumeen kotizazioarekiko pertzepzioa aldatu egiten da familiaren eta herriaren arabera. Jende askok alferrekotzat jotzen zuen, batez ere gurasoen belaunaldiek. Horregatik, beraien ama-amaginarreba askok ez zuten inoiz pentsio bat jasotzeko eskubiderik izan.

«Nekazari zen izebarengatik ez zuten ordaindu, baina gurengatik bai, eta nire senarrarengatik ere bai. Nire gurasoek seme bat bezala maite zuten». (7. Elkarrizketa)

«Nik, ezkondu arte, berak bezala lan egin nuen. Neba nagusiena kanpoan zegoen eta gu ginen gurasoekin ustiapena eramaten genuenak, txikiak Dulantzín eta Gasteizen ikasten ari zirelako. Baina ikusten duzu, harengatik kotizatzen zuten eta

niregatik ez». (14. Elkarrizketa)

Emakume batzuek diote gurasoek beraien nebengatik kotizatzen zutela, baina ez haiengatik. Badira, halaber, ustiategian lanean 25 urte baino gehiago eman arte kotizatzen hasi ez ziren kasuen testigantzak, edo inoiz kotizatzen hasi ez zirenenak. Azken horietan nabarmendu behar da, ondorioz, ez zegoela nekazaritzako asegurririk.

«Hemen Dulantziko Puelles izeneko batek eramaten zituen paperak, eta ez zituen gauzak ondo eramaten. Dena zerga-likidoan sartuta genuela esaten zuen, baina, egia esan, ez genuen kotizatzen eta ez genuen gizarte-segurantzarik». (1. Elkarrizketa)

Izapide horietarako, askotan, nekazaritzan aritzen ez ziren hiri edo herri handienetako pertsonak dirua behar bezala kudeatzearen mende egoten ziren. Askok iruzur-esperientziak kontatzen dituzte nekazaritza-lana kotizatzen saiatzerakoan; besteak beste, diruarekin geratzen ziren pertsonen ordaintzea edo urte batzuk geroago haiek ordaindutakoa baino askoz gutxiago kotizatu zutela deskubritzea.

«Nik azaldu nion Dulantzikoak kontatzen ziguna, zerga-likidoarena, eta hori iruzurra zela esan zuen. Sindikatuburu horrek eskua sartu zion, eta denborarekin konturatu ziren bazegoela inguru hartako jendea jaiotza-erregistrorik gabe, dirua poltsikoan sartu eta erregistratu ere ez zituelako egiten». (1. Elkarrizketa)

«Gizarte Segurantzara erretirora joatea egokitu zitzaidanean, esan zidaten hori ez zela inon agertzen. Nik erakutsi nizkien urte guzti horietako kupoiak eta zigiluak, idazkariak sinatuak, baina ez zegoen modurik. Orain seme batek hori begiratzen ari dit, baina uste dut ezin izango dela. Idazkari hori

diruarekin geratzen zen eta ez zuen dirua behar zen lekuan sartzen». (9. Elkarrizketa)

«Badakizu zergatik? Badakizu zer gertatzen zen? Kobratzen zuenak beretzat hartzen zuela. Beretzat gordetzen zuen, eta etxetik oso gertu zegoen norbait zen. Eta hori jende askori gertatu zitzaion hemen... eta pertsona berbera zen». (15. Elkarrizketa)

Emakume horiek inguruko gizonek adina edo gehiago lan egin badute ere, haien ahotsak ez dira inoiz entzun erabakiak hartzerakoan. Familiaren ekonomiaren zatirik handiena emaztearen soldata zenean ere, gehienetan senarren gaixotasun edo lesioengatik, gizonezkoen iritziak nagusitzen ziren beti.

«Gogoan dut etxe bat egin nahi zuen koinatu batentzat lurak erosi genituela eta aitagarrebeke ordaindu zutela. Lursailak Gasteizko pisu bat baino gehiago kostatu zuen. Nik nire senarrari esan nion ez zitzaidala ondo iruditzen, diru hori haien erretirorako izan behar zuelako, baina horrela egin zen, nire iritziak ez zuen ezertarako balio izan...». (1. Elkarrizketa)

ElkarrizketaNekazaritza-ustiategia emaztearen izenean zegoen kasuetan ere, eta hori gertatzen zen familiarengandik jaraunsten zutenean, ez ziren kontuan hartzen erabakitzeke.

«Ezkondu aurretik erdizka hartzen genituen aita eta bion artean. Baina gero, ni titularra nintzen arren, nire senarrak erabakitzen zuen». (11. Elkarrizketa)

Besteak beste, aurreko hamarkadetan hain ohikoa izan den isiltasun hori da liburu hau bezalako ekimenak hain beharrezkoak izateko arrazoietakoa bat, emakume horien esperientziak eta bizipenak balioetsi eta berreskuratzen baitituzte. Emakume horien lana batez ere nekazaritzakoa izan den arren,

batzuek gaztaroko lan-gertakariak gogoratzen dituzte, landa-eremutik bereizita: etxeetan, dendetan edo tailer txikietan zerbitzatzen duten lanak. Lehen soldata propio horiek izan ziren batzuentzat askatasunarekin eta autonomiarekin izan zuten lehen kontaktua, gutxienez finantza-arloan.

«Mila pezeta ematen zizkidaten. Nik gauzak erosten nizkien nebei, baina etxean ez nuen ezer utzi behar. Amak esaten zidan: hori zuretzat, hori zuretzat. Zer egin nezakeen nik mila pezetarekin...».

(2. Elkarrizketa)

Horietako askorentzat, lan ordaindua ezkontzarekin amaitu zen. Esan dutenez, modu «naturalean» erabakitzen zen emakumeak etxean geratzen zirela seme-alabak eta etxea zaintzeko, baina, oro har, landa-eremuko lan asko ere egiten zituzten. Nahiz eta denek onartzen duten inoiz ez ziotela lan egiteari utzi (etxeko lanak nekazaritzakoak bezain gogorak baitira), gehienek ere ez zuten kotizatu laneko urte horiengatik.

«Lan asko egin dugu. Etxean, amaginarrebak eta biok dena egiten genuen, eta etxetik kanpo ere asko egin dut. Piezara joaten zinen, behiak jezten zenituen, edo lursailera patatak landatzera. Bulegora joango ginela esan eta patatak ontziratzen genituen. Hor ergelek baino ordu gehiago sartu ditugu, oinetako min izugarria nuen... ez zenekien nola jarri ere». (2. Elkarrizketa)

Emakume guztiak bat datoz nekazaritza-lana oso zorrotza dela esatean: jaiegunik eta oporrik gabe, eta etxeko eta etxetik kanpoko lana bateratzeko zailtasun askorekin. Testigantzen artean, ohikoa da gainerako senideei, gehienetan emakumeei, eskerrak ematea dena aurrera ateratzeko laguntzagatik.

«Ez dut oroitzapen txarrik garai hartaz, baina lan asko zegoen. Lan asko. Ez zegoen jaiegunik. Aita-amaginarrebak etxean zeudenez, jetzialdiaren

ondoren gauean noizbait irten gintezkeen Gasteizera buelta bat ematera, eta alaba aitona-amonekin geratzen zen. Haiek behean lo egiten zuten eta guk goian, baina joaten baginen, amaginarreba igotzen zen berarekin geratzeko. Geratu behar baziren, geratu egiten ziren». (10. Elkarrizketa)

«Oporrak? Guk ezin izan dugu inoiz oporretara joan. Eta inoiz joaten ez bazara, gorputzak ez dizu eskatzen. Joaten bazara eta gero ezin bazara joan, orduan bai faltan botatzen dituzula gauzak». (12. Elkarrizketa)



I. Berganzok utzitako argazkia

Soldatapeko landa-lanean jarraitu zuten emakumeek emakume izatearen zailtasunak azpimarratzen dituzte hain maskulinizatuta dagoen nekazaritzaren sektorean. Arazoak izan dituzte administrazioarekin, sektoreko gainerako lankideekin...

«Istilu asko izan ditut emakume eta abeltzain izateagatik. Asko. Emakume bat abeltzaintzako titular gisa onartzen ez zutelako arbuiatu ninduten paperak iritsi zaizkit Madrildik». ... «Han 32 geunden. Eta ni

nintzen emakume bakarra. Zigoitiko emakumeek ez naute ezagutu duela urte gutxi batzuk arte. Gizonek ezagutzen ninduten». (5. Elkarrizketa)

Azaldu dutenez, emakume izanda, oso konplexua da landa-munduaren «errespetua lortzea», eta beti lehenengoa eta behar den guztirako egonda bakarrik lortzen da. Hala ere, denborarekin, gizonek aitortu egin zituzten eta haiengan konfiantza jarri zuten, baita nekazarien kolektiboaren izenean hitz egiteko ere.

«Kuoten arazoak izan genituenean, Eusko Jaurlearitzaren aurrean jarri ginen, eta igotzeko esan ziguten. Berehala niri esan zidaten. Tira, tira, igo zu». (5. Elkarrizketa)

Sektorearen maskulinizazio horren ondorioz, ohikoa zen gizonak izatea ustiatzea jaraunsten zutenak, eta emakumeek senarrarenean lan egitea.

Denak ados daude errespetu hori lortzea ez dela inoiz lan erraza izan. Ez zieten kasurik egiten emakume izateagatik. Ez zen harritzekoa senarrekin, gurasoekin, nebekin eta semeekin hitz egiteko eskatzea, haiekin hitz egin beharrean.

«Ez zidaten kasurik egiten emakumea izateagatik. Horregatik bakarrik. Behin, Aldundira joan nintzen, hanka sartu zutelako hemendik igarotzen ari zen bide batekin, eta Aldundian esan zidaten: Hobe Vicente etortzen bada. Eta nik esan nien ospitalean zegoela... ez zidaten kasurik egin». (4. Elkarrizketa)

Emakume horiek gizonen mende bizi izan dira bizitza osoan, eta horien ahalegina eta lana ez da inoiz gizonak izan balira bezainbeste aitortu.

«Gaitz egin digute, hori da egia. Baina kexatzen bazara eta salatzen hasten bazara... gaiztoa zara». (4. Elkarrizketa)

Hala ere, lana ez da inoiz amaitzen. Horietako askok, landatik alde egin ondoren ere, lanean jarraitu zuten: beren landa-turismorako lekuak edo produktu naturalen enpresak sortzen, gaztandegiak, esaterako.

«Apustu arriskutsua izan zen, ekonomikoki

leporaino sartu ginelako, baina gaztandegia irekitzea nire bizitzan hartu dudan erabakirik onenetakoa izan da». (8. Elkarrizketa)



Felisa Galdós y Benito Portuondo, galardonados con los "Premios G a su labor de toda una vida en los sectores agrario y pesquero"

M^a C Lz de Sabandok utzitako argazkiak

Gaur egun, lan horietako gehienak seme-alabek egiten dituzte, baina askok onartzen dute ahal duten guztian laguntzen jarraitzen dutela.

Lanarengatik kotizatzeko beharra agerian geratzen da, batez ere erretiratuta daudenean. Askorentzat, une honetan jasotzen duten pentsioa da duten lehen diru propioa, eta kontu propioak sortu dituzte hori kudeatu ahal izateko.

«José Cruzek esan zidan zertarako nahi nuen beste kontu bat, jada bagenuela biontzako kontu bat, eta nik erantzun nion nire erretiroa niretzat zela. Zer esan ere ez zekiela geratu zen, eta gero barre egin zuen. Gutxienez Ignaciori baimena emateko eskatu zidan, arazorik ez izateko, eta esan nion hori ondo iruditzen zitzaidala, baina kontua nire izenean egongo zela, nire erretiroa zela». (8. Elkarrizketa)

Hala ere, guztiek ez dute zorte bera. Askok ez dute inolako pentsiorik landan eta etxean lan egin ondoren.

«Ez zuen inork nigatik kotizatu 30 urte izan nituen arte eta erretiroa hartu ahal izan dut, baina miseria bat kobratzen». (14. Elkarrizketa)

EMAKUMEEN ETA LANDA-EREMUAREN EGUNGO EGOERA, ETA EMAKUMEEK IKUSTEN DITUZTEN ALDAKETAK

Landa-eremuaren egungo egoeraz galdetzen zaienean, emakumeek bizi izan dituzten aldaketei buruz hitz egiten digute batez ere: indibidualismoa areagotzea, familia-harremanak galtzea...

Askok uste dute herrietako gizarte-bizitza murriztu egin dela, eta jendea askoz gehiago geratzen dela etxean. Horren isla da, halaber, tokiko denda eta saltoki gutxi izatea, beraien gaztaroan ez zeuden multinazionalen eta frankizien gorakadaren aurrean.

«Gauzak desberdinak dira, baina ez dakit hobeak edo okerragoak diren. Duela urte batzuk Irlandara joan ginen lehen aldian, han bizi den alaba bisitatzera, merkataritza-guneak bakarrik ikusi nituen, ez zegoen dendarik, eta begira, orain hemen berdina gertatzen ari da; denbora gutxian supermerkatuetan soilik janari prestatua egongo da».

(3. Elkarrizketa)

Emakumeen egoera azpimarratzen denean, esaten dute asko hobetu dela, baina oraindik ere oso konplexua dela lana eta zaintza uztartzea. Bat datoz honekin: lan-formatua eta -mota asko aldatu diren arren, emakumeek lan handia egiten jarraitzen dute.

«Nagusiak hau esaten hasten direnean: ‘Guk lan egin dugu, guk ez dugu inoiz ordutegirik izan...?’

Orain alabak eta erraina ikusten ditut, eta haiek ere lan egiten dute. Asko kritikatzten da eta ‘garai haiek hobeak izan ziren’ edo ‘hobeto egin genuen’ esateko ohitura txarra dugu. Nik ez dut hori uste; bizitzako egoera desberdinak dira». (3. Elkarrizketa)

Beraien alaba eta biloba ia guztiek landa eta landa-eremuak utzi dituzte, eta orduan nabaritzen da gehien zenbat aldatu den dena.

«Bada ez dakit. Nire alabak, adibidez, Eusko Jaurlaritzan egiten du lan. Nik uste dut bera pozik dagoela, baina zer-nolako ordutegiak dituen... ez dakit nik... Jakina, oso urrun geratzen zaio landa-eremua. Ez zaio inoiz egokitu». (6. Elkarrizketa)

Ustategietako emakume kopuruaren beherakada hori emakumeek gaur egun haiek jasan zuten adina jasateko prest ez egotearekin lotzen da. Batzuek aurrerapen positibotzat jotzen dute hori, baina beste batzuek atsekabetuta eta triste ikusten dute.

«Horrela, orain ez dago emakumerik landan. Ez da lehen jasaten genuena onartzen». (1. Elkarrizketa)

«Nik ez dut uste jasateko gai izango zirenik. Agian guk gehiago jasan dugu bota diguten guztia». (2. Elkarrizketa)

Atzera begira hitz eginez, batzuek diote uste dutela gaur egun beraiek ere ez luketela pairatuko bere garaian jasan zutena. Hala ere, egia da horrek emakume nekazarien kopurua nabarmen murriztea dakarrela.

«Izan ere, uste dut orain guk ere ez genukeela hori jasango. Uste dut planto egingo nukeela. Nire ustez, tarte txikia dago pertsona ona izatearen eta ergela izatearen artean, eta agian horregatik gertatu zaigu hori guztia». (2. Elkarrizketa)

Balioen aldaketa hori oso islatuta dago, batez ere, adinekoak zaintzeari

dagokionez. Beren buruaren oroitzapenean asko sakrifikatu eta zaintza bizimodu bihurtu zuten. Beraz, emakume gazteenen artean sentimendu hori gainbehera doala ikustea ausarta eta askatzailea dela uste dute, baina tristea eta ulertezina aldi berean.

«Egun batean, bilera batean, hiru emakumek bat egin genuen: ni, zaharrena, nire alaba izan zitekeen berrogeita hamar urteko bat, eta 17 edo 18 urteko beste bat, nire bilobak bezala. Neska gazteak esan zuen berak, ama heldua denean, egoitza batera eramango duela zalantzarik gabe. Nik garai hartan aita etxean nuen Parkinson gaixotasunarekin. Oso gogorra izan zen, eta neskari hori esaten entzuten nion, eta alde batetik ulertu egiten nuen, baina, aldi berean, ez nuen ulertzen nola esan zezakeen hori. Ez dakit ongi azaltzen, baina hala izan zen. Alde batetik ezin hobeto ulertzen nion, eta bestetik ezin nuen ulertu». (5. Elkarrizketa)

Emakumeek une honetan beren askatasuna gehiago baloratzen dutela uste dute, eta beraientzat denbora gehiago izatea bilatzen dute; hori, oro har, positibotzat hartzen dute.

«Aldaketa asko daude eta hoherantz dira. Eta ni horregatik pozten naiz. Nire alabak nahi izan duten lekura joan dira eta nahi izan duten bezala bizi izan dira». (8. Elkarrizketa)

Lehen, emakumeak orain baino beldur handiagoarekin bizi zirela diote: haurdun gelditzeari, drogari... Baina asko aurreratu dela, eta emakumeek amets egin dezaketela. Hori beraiek imajinatu ere egiten ez zuten zerbait da.

«Gauza askotan aurrera egin da, ikasketetan, batez ere. Kirola egin dezakete, guk ezin genuen ezer egin. Orain haien ametsen atzetik ibil daitezke.

Guk horretan pentsatu ere ez genuen egiten». (14.

Elkarrizketa)

Hala ere, ez dituzte soilik emakume nekazarietako aldaketak hautematen. Aldaketa hurbilenak familian ikusten dituzte: bilobetan, suhietan...

Asko kostatzen zaie gaur egungo gaztaroan beren burua ezagutzea, eta baten batek uste du gaur egungo gazteek bere garaian baino «haur» izaera handiagoa dutela.

«Nik orain haur gisa ikusten ditut. Gu, bere adinean, arduratsuagoak ginen. Nik, bere adina nuenean, nire nebak zaintzen nituen, nagusia nintzen eta...». (6. Elkarrizketa)

Uste dute orain jende gaztea ez dagoela laguntzeko hain prest, eta asko galdu dela landa-eremuan hain bereizgarri zen komunitate- eta elkartze-sentimendua.

«Lehen denak zeuden lan egiteko prest. Landara joan behar bazen, denak joaten ziren. Orain bakoitzak bere jarduerak ditu: aitak landa-eremuan lan egiten badu, ez du emaztearen laguntzarik izango berak kanpoan lan egiten badu, ezta beti bere gauzak dituzten seme-alaben laguntzarik ere... Denak elkarri laguntzearen kontu hori galdu egin da». (15. Elkarrizketa)

Hala ere, hobekuntza motel baina garrantzitsua ikusten dute gizonak zainketei dagokienez duten rolean: gero eta gehiago inplikatzeko direla ikusten dute, eta etxeko lanaren karga handiagoa beren gain hartzen dutela. Hala ere, oraindik asko dago egiteke; heziketa aldatzen hasi behar dela diote, bikotearen rola moldatzen joan ahal izateko.

Dena den, hori emakumeak etxetik kanpo lan ordainduan sartzearen ondorio gisa ere ikusten dute. Uste dute orain hazkuntzak konplexuagoak direla eta kanpoko laguntza gehiago behar dutela.

«Orain biek lan egiten dute kanpoan, biek lan egiten dute etxean, biak arduratzen dira umeez, eta ez dira iristen... Eta hainbeste arropa eta hainbeste gauza dituzte... Hori tolesten eta ordenatzen hasten zara, eta ez duzu inoiz amaitzen». (9. Elkarrizketa)

Hala ere, oso argi utzi dute emakumeek ere lan handia egin zutela, eta gizonek etxean parte hartzeari dagokionez izan duten aldaketak zerikusi handiagoa duela hezkuntzan eta familietan egin diren aldaketekin.

«Tira, orain gazteek askatasun handiagoa dute, guztiz desberdina da, baina nik ez dut oroitzapen txarrik. Orain gizonek etxean laguntzen dute eta hori primeran dago. Orain emakumeek lan egiten dutelako omen da... Ai ama! Nik ere lan egiten nuen, baina lehen gizonek ez zekiten hori egiten... Ni senarra bezain nekatuta nengoen gauean iristen ginenean, eta ni afaria egiten hasten nintzen... Orduan txirrina jotzen zuten eta ni esnea saltzera jaisten nintzen, eta igotzen nintzenean... han zeuden denak afaria egiten jarraitzeko ni itzultzeko zain... Hori oso gaizki zegoen». (10. Elkarrizketa)

Nahiz eta guztiek uste duten emakumeak etxetik kanpo lanean hastea positiboa dela, haien arabera, halaber, horrek eragiten du orain beren ordutegiei askoz ere «lotuago» egotea, eta horrek kontziliaziorako gatazka gehiago dakartza.

«Nik, pasatu dudan guztiarekin, edozer gauzatarako gelditu nezakeen beti, Langraizko jaietara joateko edo beste edozertarako. Alde horretatik, ni baino lotuago daude». (11. Elkarrizketa)

Hala ere, emakumeek soldata irabazteak konpentsatu egiten du horrek dakarren askatasunagatik.

«Ikusten dudan alderik handiena da nik inoiz izan ez dudan soldata dutela. Eta hemen behar izango nukeen. Guk ez dugu lursail askorik izan. Nahiko familia apala ginen». (11. Elkarrizketa)

Etorkizunari begira, denek uste dute oraindik lan asko dagoela egiteko. Oraindik ere badira desberdintasunak gizonen eta emakumeen artean, eta nekazaritzaren esparruan nabarmenagoak dira.

Esan digutenez, beharrezkoa da gizonak jabetzea zein beharrezkoa den emakume nekazariaren egoeraren alde borrokatzea, eta zein beharrezkoa den emakume guztiak nomina bat izatea eta gizarte-segurantzian alta emanda egotea; izan ere, beraiek bizi dute eta bizi izan dute independentzia ekonomikoa izateak ematen dizun askatasuna, ia antzinako emakume bakar batek ere bere bizitzan izan ez duena.

«Emakumea autorrealizatu egin behar da, eta horretarako gizonak konbentzitu behar dira. Ez dugu ezer egiten haiei esatearekin bakarrik, emakumeok gure artean hitz egitearekin. Gizonekin kontatu behar dugu. Gizon gehiagok hitz egin behar dute horrela, gizonek gizon bati entzuten diotenean gehiago sinesten diotelako». (3. Elkarrizketa)

Gainera, ez dute uste emakumeen borroka genero-berdintasunerako bakarrik beharrezkoa denik. Lan handia dago gure herriak mantentzeko eta zaintzeko; bidezko prezioak lortzeko borrokatu behar da, landa-eremuaren aldeko politikak lortzeko eta izapideak eta burokrazia hobetzeko.

«Borrokatu egin behar da prezioak bidezkoak izan daitezen. Nekazariari zer ordaintzen zaion eta kontsumitzaileak zer ordaintzen duen jakin dadila. Hori arautu beharra dago». (12. Elkarrizketa)

Orain hasten diren emakume nekazariari zer esango lieketen galdetzen diegunean, erantzuna ia aho batekoa da: landa-eremuko emakumeek oraindik

asko dute borrokatzeko.

«Landan dagoen emakumeak borroka egin behar du. Orain inoiz baino trebatuta daude eta gauzak aldatzeko lan egin behar dute, hobetzeko».

(3. Elkarrizketa)

Ez etsitzeko nabarmentzen dute, amore ez emateko. Merezi du kontzientziaztea eta mobilizatzea bizikidetza eta landa-bizimodua mantentzeko. Horregatik, nekazaritza-bizitzaren «balioa azpimarratzeko» beharraz hitz egiten dute, kanpoko pertzepzioa alda dadin.

«Landa ez da ondo ikusten, oro har, leku guztietan. Etxe langileak bezala, horiek ere ez zeuden ondo ikusita (beheragoko pertsonatzat ikusten zituzten). Niri iruditzen zait gaur egun landa-eremuari berdin gertatzen zaiola eta guk igo behar dugula ospe hori. Harro egon behar dugu landa-eremuko parte izateaz». (13. Elkarrizketa)

«Nik eskatzen diet amore ez emateko. Merezi duela. Landako jendea zoriontsuagoa da landetan hirian baino». (5. Elkarrizketa)

GURE SOROA

Emakume guztiek irribarre egiten dute Gure Soroaz hitz egitean. Beraientzat zer izan den hitz batekin deskribatzeko eskatzen diegu: askapena, bizitza, ikaskuntza, adiskidetasuna, borroka, hazkundera...

Emakume askorentzat elkartean sartzea lehen aldiz askatasuna esperimintatzea izan zen. Gure Soroa emakume nekazarietzako gunea izan zen eta bada oraindik ere; bertan elkar ezagutu eta beraien burua aintzatesten dute.

«Gure Soroari asko zor diot, polita jarri eta irten beharra baitzegoen. Gure Soroa gabe niretzat ez zen ez solasaldirik, ez txangorik, ez irteerarik izango». (1. Elkarrizketa)

«Garai zoragarria izan zen, hunkitu egiten nau hura gogoratzeak. Gogoan dut Coma-rugara egin genuen lehen bidaia. Hotel txar eta hotz batera joan ginen, baina primeran pasatu genuen! Enrique gabe etxetik irteten nintzen lehen aldia zen. Sinestezina iruditu zitzaidan... Ni pozez zorutzen itzuli nintzen etxera». (10. Elkarrizketa)

Gogoratzen dituzten hitzaldi eta tailerren artean, bat nabarmentzen da: beren burua aurkeztea proposatu zieten, baina aitak edo senarrak nor ziren esan gabe.

«Aizu, eta kostata, ez pentsa. Beti hitz egin izan da horrela». (4. Elkarrizketa)

Elkarteak lagundu egin du emakume horiek beraien burua eta landa-eremuan duten potentzial guztia aitor dezaten. Horrela, Araba osoko

emakumeak elkartzeko eta hazteko gunea izan da.

Gainera, hainbat herritako emakumeek elkar ezagutu eta elkartzeko guneak sortzeko helburuarekin sortu zen, guztiek komunean dutenaz hitz egiteko: nekazaritzako emakume gisa bizitako esperientziaz.

«Hasieran, sortu zenean, uste dut emakumeak beraien herrietatik ateratzea bilatzen zela. Nik ez nuen behar hori, baina ez zitzaidan gaizki iruditzen, emakume batzuek behar zutelako». (6. Elkarrizketa)

Ahalduntzeari buruzko hitzaldiak, bidaiak, tailerrak... gogoratzen dituzte, eta gehienek diote Gure Soroarekin egin zutela lehen bidaia bakarka, aita edo senarrik gabe.

«Etxetik irtetea, bidaiatzea, inoiz neure kabuz egitea pentsatu ez nituen gauzak dira. Beti berarekin (nire senarrarekin) eta hurrekin edo lagun batekin ateratzen nintzen». (14. Elkarrizketa)

«Argi ikusi nuen. Nik 50 urte nituen eta hori bakarrik egin nuen. Askapen bat izan zen. Ezagutza-ikastaro horietan ikasi duguna... Niri Gure Soroak bizitza aldatu zidan». (1. Elkarrizketa)



J. Morillasek utzitako argazkia

Elkartean urte asko eman ondoren, esker oneko hitzak baino ez dituzte; hala ere, aitortzen dute elkarteko kide izatea ez dela beti erraza izan. Berdintasuna bilatzeak, Gure Soroan planteatzen den bezala, jende askok uste duenaren aurka joatea suposatzen du.

«Berdintasuna. Berdintasuna familian. Asko borrokatu behar dugu, oso erraza delako esatea, baina gero etxean... Askotan haizearen kontra joan behar izaten dugu. Inori ez digute ezer oparitu. Gure Soroan askotan esaten dugu hitzaldi bat oso ondo dagoela, baina ez da ezer lortzen etxetik hasi ezean».
(3. Elkarrizketa)

Gure Soroako bilerara nekazaritzako eta etxeke lanak uztartuz joatea erronka handia zen, baina denak bat datoz merezi izan duela esatean. Senar batzuek parte hartzera bultzatzen bazituzten ere, denek ez zuten ondo ikusten emazteek emakumeen elkartetan izena ematea.

«Bilera ordurako etxe osoa eginda edukitzen saiatzen nintzen. Aldez aurretik bagenekien noiz ziren, eta egun horretan ordubete lehenago jaiki behar bazenuen, jaiki egiten zinen dena eginda egon zedin eta horra joan ahal izateko».
(4. Elkarrizketa)

«Gure Soroak alderdi guztietan mugitzeko balio izan dit. Etxean ez dut inoiz joateko arazorik izan. Aitzitik, kanpoan gauak pasatzeko bidaia bat antolatzen zenean, Juanjok animatzen ninduen izena ematera. Asko atera naiz zuekin eta aktiboen dagoen bazkideetarikoa bat izan naiz».
(11. Elkarrizketa)

Hala eta guztiz ere, Gure Soroa aldarrikapenerako gunea izan da eta oraindik ere bada, non emakume horietako askok beren alderdi aldarrikatzaileena aurkitu eta garatu duten.

«Eta gauza asko lortu ditugu. Emakumeentzako

autobusena gertatu zenean, horra joan ginen auzokide bat eta biok udalbatzara. Eta eguneko zentroetakoa gertatu zenean, hor nengoen ni. Nik ez dut inoiz arazorik izan joan eta nire burua aurkezteko. Nik ez dakit ongi hitz egiten, baina joan egingo naiz eta bihar edonorekin hitz egingo dub». (4. Elkarrizketa)

Askok UAGA Gure Soroaren lorbide gisa aipatzen digute, eta alderantziz, eta horietako asko bien kide izan dira aldi berean.

«Aldizkariak arduratzen ginen. Han oso emakume baliagarriak ezagutu nituen. Urte horiek on egin zidaten. Gogoan ditut Nati, haranetik ezagutzen nuena, eta Lucía, izugarria zena. Lucía esaten zuen: Emakumeek gizarte-segurantzaren hemen izan dezaten borrokatu behar da, eta hori alda dadila, emakumeak ezin direlako aseguru eta erretirorik gabe egon». (7. Elkarrizketa)

Irtetea. Beren etxeetatik, beren herrietatik irtetea. Emakume horientzat, eta batez ere gidabaimenik gabekoentzat, irten ahal izatea, lehen aldiz, aske bizitzea zen.

«Askatasuna. Irten ahal izatea eta beste emakume batzuk ezagutzea. Beraiekin gozatzea. Gizonak Gasteizera joaten ziren eta han herri askotako jendea ezagutzen zuten, baina emakumeek ez, «normalean» ez zinenez etxetik ateratzen...». (10. Elkarrizketa)

«Behin eta berriz esan behar izan zidan izena emateko, gidabaimenik ez dugunok zama bat garelako iruditzen baitzaigu, eraman eta ekarri egin behar gaituztelako». (9. Elkarrizketa)

Gidabaimena da emakume guztiek errepikatzen duten beste gaietako

bat. Lanerako ezinbesteko eginkizunaz gain, traktoreak gidatzea edo beste herri batzuetara material bila joatea ahalbidetzen baitzuen, gidatzeko aukera izateak, batez ere landa-eremuan, askatasuna izatea esan nahi zuen.

«Niri gidabaimenak bizitza eman zidan, askatasuna eman zidan nahi nuenean Andollura jaisten nintzelako. Bestela... Zer egingo nuke hemen?» (1. Elkarrizketa)

«Han beharrezkoa zen. Autoarekin libre zinen. Arratsalde batean lan handirik ez zegoenean, autoa eta alaba hartu eta Otazara joaten nintzen nire familia bisitatzera... Nire senarrak bakarrik izan balu gidabaimena... Zer?» (10. Elkarrizketa)

Emakume gehienek ez zuten inoiz gidabaimena atera. Beharrezkoa ez zela uste zuten, eta ateratzeko unean askok ez zuten aukera gisa planteatu ere egin, nahiz eta gaur egun onartzen duten agian egin beharko zuketela.

«Ez dakit zergatik ez nuen atera. Nagikeriagatik? Ez dakit... Nire semeek esaten zidaten: Ama, ez kezkatu, leku guztietara eramango zaitugu, eta, egia esan, inoiz ez dit inork esan nonbaitera eramango ez nauenik». (6. Elkarrizketa)

Horietako batzuek ezkondu ondoren atera zuten gidabaimena, ezkontzea ezinbestekoa zela sinetsita, batez ere herri batean.

«Ezkondu aurretik erabaki nuen aterako nuela. Trenik eta autobusik ez zegoen herri batera nentorren bizitzera. Ez ninduten beti eramango! Nik beti esan dut herri batean emakume batentzat gidabaimena izatea jatea baino garrantzitsuagoa dela, ezinbestekoa dela. Askatasuna ematen dizu». (3. Elkarrizketa)

«Gidabaimena lehenengoan atera nuen. Azterketa bukatutakoan negarraldia izan nuen eta

irakasleak galdetu zidan ea zergatik egiten nuen negar ondo egin banuen. Emozioagatik zen. Aitak auto bat erosi zuen, eta hori etxean geratu zen». (4. Elkarrizketa)

Gidabaimena ateratzea ez zen beti erraza izaten, batez ere gurasoen eta senarren iritziz eta mesfidantzengatik. Ia emakume horiek guztiak izan ziren gidabaimena atera zuten lehenak familian.

«4700 pezeta eman zizkidaten. Esan zidaten gustuko eskumuturrekoa erosteko zela, eta esan nuen... Hauxe da nire aukera! Eta gidabaimena atera nuen. Aitari ez zion graziaz egin. Ez zegoen horretarako prest, baina gero begira zenbat behar izan dudana... Orduan, familiako emakume bakar batek ere ez zeukan gidabaimena, eta udaletxean bik bakarrik geneukan. Gogoan dut nire nebei esan niela: Zertarako nahi dut nik eskumuturrekoa? Nik gidabaimena nahi dut». (5. Elkarrizketa)

«Nire amak esaten ninduen: Zuk zertarako aterako duzu gidabaimena? Autobusa Alitik pasatzen da... Zertarako behar duzu? Eta nire senarrak erantzuten zion: Zer zerikusi du horrek? Eta egunen batean edonora joan nahi badu? Gero, denborarekin, amak Abornikanora kotxearekin eramateko eskatzen zidanean, (nire senarrak) beti erantzuten zion txantxetan: Baina ez al zenioen ez zuela gidabaimena atera behar?» (10. Elkarrizketa)

Beste kasu batzuetan, gurasoak izan ziren, herrien artean mugitu ahal izatearen garrantziaz jabetuta, alabei hori ateratzera animatzen zituztenak.

«Gasteizera joan eta atera egin genuen. Aitak esaten zuen gidabaimena eta autoa eduki behar

genituela irten ahal izateko». (7. Elkarrizketa)

Askok nekazaritza-lana utzi eta erretiratuta dauden honetan, gidabaimenaren garrantzia inoiz baino nabarmenagoa da: askatasunez eta bakarrik mugitu ahal izatea esan nahi du.

«Nik ikusten ditut emakumeak ez dakitenak nola esan senarrari igerilekura eramateko traktorea pasatzen ari bada. Hori ezin da horrela izan, pena da. Ezin dute erabaki Villanueva joatea ikastaro bat egitera, nik egiten dudan bezala». (7. Elkarrizketa)

Gure Soroa emakume nekazarien lokarri eta topagune izan da, kilometro gutxira egonda ere, elkarrekin honengatik izan ez balitz inoiz ezagutuko ez zirenak. Harreman eta lagunarteko espazio bat.

«Gure Soroa Arabako emakume nekazarietako parte hartu genuen ikastaro batean sortu zen. Konturatu ginen, batzuetan hain gertuko herrietan egonda ere, elkarrengandik kilometro gutxira, ez genuela elkar ezagutzen, eta pentsatu genuen zer egin zitekeen tailerrak irauten zuen bi asteak amaitu ondoren sortutako harmonia hori ez desagertzeko. Eta han hasi ginen Menagaraikoekin, haiek ere oso aktibo baitzeuden». (12. Elkarrizketa)

«Irekitzeko eta ni bezalako beste emakume batzuekin hitz egiteko balio izan zidan. Batzuk ezagutzen nituen, baina ez nuen haiekin hitz egin han egon nintzen arte». (14. Elkarrizketa)

Elkartea, kasu batzuetan, lorbide bat izan da emakume horiek beste erakunde eta elkarte batzuetan parte hartzeko, eta han ere ahotsa altxatu behar izan zuten, kasu egin ziezaieten.

Emakume horientzat, Gure Soroaren sorkuntza sistema patriarkalaren aurrean duten inkonformismoa bideratzeko gune bat izan zen, baita emakume

eta nekazari gisa dituzten aldarrikapenak bideratzeko ere, emakumeentzat hain negatiboak diren genero-harremanak eraldatu ahal izateko; azken batean, ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako prozesu bat.

Hala, protagonista horiek emakume nekazariak edo abeltzainak dira. Guztiek onartu dute, sindikatutik, Administrazio Batzarreko lehendakaritzatik edo elkartetik, beraien inguruan eragiteko duten ahalmena eta gaitasuna, emakume nekazarien bizitza eta beraien bizitza propioa hobetzeko. Parte-hartzeak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen aurrean inkonformismoa bideratzea ahalbidetzen du.

Erljioa eta kultura bereizten zailak izan diren gizarte batean bizi izan diren emakumeak dira. Emakumeen gaineko kontrol handiagoa justifikatzen duten kultura-ereduak eta erlijio-praktikak dira, eta, ondorioz, emakumeen aurkako diskriminazioak eragiten dituzte. Bekatua eta errua erabili dira emakumearen sexua, ugalketa-politika eta gorputza kontrolatzeko, baita gure protagonistek modu «naturalean» egin behar izan duten zaintza-lana kontrolatzeko ere.

Lurrari lotu diren emakumeak dira, herri txikietan daude, eta badirudi sorgor egitura sozialetan sartuta egon direla. Egitura horietan, egin behar dena ez egiteak presio handia suposatzen du eta autonomiari eustea zaila da, baina lan handia egin dute. Hala ere, lurra lantzea, norberaren etxean lan egitea edo besteren etxean lan egiteagatik kobratzea ez da lan balio-etsia, gutxi-etsia baizik, landa-eremuko emakume askok bizitzeko edo irauteko dituzten pentsioek erakusten duten bezala.

Ama, alaba eta emazte izateko hezitako emakumeak izan dira, beren bizitzan zehar nekazariak, ustiategiengana jabeak, enpresariak edo soldatapekoak izan direnak. Landa-lanari merezi duen aintzatespena emateko borrokatzen duten emakumeak dira. Egiturazko oztopoak eta gizarte-arau diskriminatzaileak gorabehera, sistemari lekua irabazten jarraitzen dute beraien bakartasunaz gozatzeko; inoiz gozatu ezin izan duten bakartasunaz gozatzeko.

Beraien bizitzaren gidaritza hartu duten emakumeak dira, beraien

lagun maiteen erantzukizun osoarekin. Txikitatik etxe bat eraman duten langile nekaezinak dira. Beharrezkoa izan denean beren burua berrasmatzeko beharrezko ekimena izan dute, eta beren lan apartarekin, beren ustiatagia aurrera atera dute, merezitako aintzatespena lortu arte. Gizartea eraldatzeko eragileak dira, eta sinesten dituzten kausen alde lan egiten dute, hala nola euskaragatik, errepide baten trazaduragatik edo autobus baten geltokiagatik. Beraien jatorriari, lurrari, familiari eta nortasunari eutsi nahi izateko askatasuna duten emakumeak dira.

Emakume ausartak dira, molde tradizionalekin apurtu, modaren joerak aldatu eta aurrerapen teknikoekin bat egiten zutenak. Hala ere, haien ahotsak, esperientziak eta jakintzak, *a priori*, ez zuten gizonenak bezainbeste balio, eta horregatik elkartu ziren Gure Soroan beren espazioa sortzeko. Han, beste emakume batzuekin batera, kontzientzia hartzeko prozesu bati ekin zioten eta, harrezkero, familien, auzotarren eta herritarren iruzkinei aurre eginez, eta idatzi gabeko baina argi ezarritako arauen aurka, beraien askapena lortzeko aurrera egin dute etengabe, independentzia- eta autonomia-urrats txiki baina zuhurrekin.

Eta orain, beraien adina eta eskarmentuarekin, eta erretiroa hartuta, aukera badute, argi dituzte oraindik ere landa-eremurako aldarrikapenak, gero eta kontzienteago baitira aldaketaren beharraz eta bizitza eta zaintza erdigunean jartzearen garrantziaz. Elkartearen eztabaida bakoitzean, desberdintasunak berrikustea eskatzen duten sinesmen berriak aurkitzen dituzte. Oraingo erronka da gizonen eta emakumeen landako bizitza zaintzea eta hori zaintzearen alde egitea. Zaintza eta nekazaritza eta abeltzaintza benetan aintzat hartzea eta ikusaraztea, zaintzeko eta pertsona guztiak elikagaiekin hornitzeko funtsezko jarduera baita.

Gu geu, gure belaunaldiko emakumeak, urratsez urrats iritsi gara honaino. Orain, belaunaldi berriei dagokizue lanean jarraitzea berdintasun eta justizia sozial maila handiagoa lortzeko.

GURE PROTAGONISTAK



